



Inauteriak
Azken txanpa

ARANTZA → 14
Bigarren trikitixa jaialdia martxoaren 11n

BAZTAN-BIDASOA → 16
'Hemen erosi, euskaraz erosi' kanpaina abian

LEITZA → 26
Udaletxearen 100. urteurreneko ospakizunak

BAZTAN → 32
Aroztegiko aferan isuna Garbiñe Elizegiri

ESNE SEKTOREA



ERREPORTAJEA → 3-5

Abeltzainak eta marmitak gainezka

Aspalditik dago esne sektorea egoera larrian. Eta Danonetik datorren azken berriak are okerrago utzi ditu abeltzainak. Apirilaren 1etik aitzinera Danonek eskualdeko sei eta Larraungo bertze abeltzain bati esnea gehiago ez diela bilduko erran die eta zintzilik gelditu dira. Egoerak gain hartuta horietako batzuek esnetako behiak saltzea erabaki dute. Hori aski ez eta Sorian 20.000 behiko ustiategi bat sortu nahi dute, Europako haundiena izanen litzatekeena, eta urtean ia 180.000.000 litro esne ekoiztuko litzukeena.

Berako Maratoi Erdirako izen emateak martxoaren 6an

Egun horretan 15:00etan irekiko dituzte parte hartzeko izen-emateak eta hilabete bereko 31n itxi. Lehenagotik ere bai, eskuragarri paratutako 525 dortsalak agortzen badira. → 38

LEITZA/GOIZUETA → 27

Iberoko dorrea konpontzeko 450.000 euroko inbertsioa egingen du Gobernuak

Teilatua konpondu eta hormak berritu eta indartzeaz gain, burdinolaren historia eta ondarearen garrantzia azalduko duten panelak jarriko dituzte.

ZOZKETAK

→ 48



Erabili **Ttipi txartela** pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

probextu aukera!

Atera **TTIPI TXARTELA** hemen

www.bertsozale.eus



Nafarroako
Bertsolari
Txapelketa
2017

FINAL-LAURDENAK

IRURITA

Gizarte Bilgunea

Martxoak 4, 17:30

OSKAR ESTANGA



JULEN ZELAIETA



AMAI ELIZAGOIEN



JOSU SANJURJO



EKAITZ ASTIZ



SAATS KARASATORRE



berako
agenda
e.us



Martxoak

berako
agenda

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonoan
edo www.berakoagenda.eus



04

LARUNBATA

**SOLASALDIA
EMAKUMEON
GORPUTZA: MINIK GABEKO**
ERDITZE KONTZIENTEA
Estitxu Fernandez
17:00
Beralandetan

12

IGANDEA

**FILMA
SUFRAJISTAS**
Sarah Gavron;
Erresuma Batua, 2015
18:00
Beralandetan

Antolatzailea:
Hortzarako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea

24

ORTZIRALEA

**ANTZERKIA
HOTEL BRASIL
(ASPACE)**
19:00
Kultur Etxean

Antolatzailea: Uxue - ASPACE



11

LARUNBATA

**ANTZERKIA
FRANCOREN BILOBARI
GUTUNA**
Artedrama, Dejabu Panpin
Laborategia eta Le Petit
Theatre de Pain
19:00
Kultur etxean

Sarrerak: 10 €
Sarrerak salgai Errekalde eta Xuga ostatuetan
Argibide gehiago: www.franco.eus



18

LARUNBATA

**BERTSOAK
NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
(finalaurrekoa)**
17:30- Kultur Etxean

Sarrerak: 10 € (arrunta) eta 6 € (bazkideak eta
16 urtetik behetikokak)
Aitzinetik sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus
eta Errekalde Ostatuan. Egunean bertan
Kultur etxeko leihatilan.

Argibide gehiago: www.bertsozale.eus



31

ORTZIRALEA

**HAURRENTZAKO IPUIN
KONTALARIA SAIOA
"HITZEN LAPIKOA"**
Izaskun Mujika
4 urtetik aitzinera
18:00
Herri Liburutegian





Esne sektorea burua altxatu ezinik dabil azken hamarkadatan.

ABELTZAINZA → ESKUALDEKO ABELTZAINAK KEXU

Milaka eta milaka litro esne inorako ez

Apirilaren 1etik aitzinera Danonek eskualdeko sei abeltzaini ez die esnea gehiago bilduko

Donamaria, Erratzu, Orabidea, Urdazubi eta Zubietako abeltzainei eragin die erabakiak eta egoerak gain hartuta, batzuek behiak saltzea

erabaki dute. Gainerakoek bertze enpresaren batek erostea espero dute. Edozein kasutan, denek etorkizuna ez dute sobera ona ikusten.

G. PIKABEA

«Esne sektoreari bertze ostiko bat». Halaxe zioen EHNE sindikatu-ko Aitor Azkarate aniztarrak joan den urtarril hondarrean TTIPI-TTAPA aldizkarian argitaratutako artikuluan. Baze- kien zertaz ari zen. Izan ere, Donamaria, Erratzu, Orabidea, Urdazubi eta Zubietako sei abeltzain airean utzi ditu Danone enpresak. Oderizko (La-

rraun, Nafarroa) bertze bat ere bai. Bizpahiru hamarkadatan litroaketa litroak ekoiztu dituzte Danonerentzat. Eta ora- in, inork espero gabe, apirilaren 1etik aitzine- ra ez diela esnea gehia- go bilduko jakinarazi die. Arrazoiak? Urruti dau- dela, garraioa garesti ateratzen zaiela, esnea «soberan» badutela...

Milaka eta milaka li- tro dira: zazpi abeltzai-

nek guztira 14.000 litro saltzen baitizkiote Da- noneri bi egunetik be-

hin. Urtean bi milioi litro- tik goiti dira.

KOLPEAK ETENIK GABE

2015ean esnearen ekoizpen kuota kendu zutenetik egoerari buel- ta eman ezinik ibili dira, eta Danonetik ailegatu zaien azken berriak gain hartuta, batzuek behin- tzat esnetako behiak sal- tzea erabaki dute. Se- gituko dutenen pano- rama ere ez da hagitz ona. Orain dela 30 bat urteko prezioan saltzen dute esnea eta gastuak goiti doaz. Gainera, So- rian 20.000 behiko us- tiategi bat egin nahi du- te, 180.000 tona esne ekoiztiko dituen.

DATUA

14.000

LITRO ESNE

biltzen ditu Danonek bi egunetik behin eskualdean eta Larraunen. Apirilaren 1etik aitzinera gehiago ez ditu bilduko.

Kexu dira abeltzainak, haserre. Danoneren noti- ziak bete-betean ukitu dituen Ander Elizalde (Urdazubi), Antonio Arbu- rua eta Jesus Mendibu- ru (Orabidea) eta Miel Mindegiaekin (Zubieta) solastu da TTIPI-TTAPA.

DANONEK ESNEA EROSTEARI UTZIKO DIEN ABELTZAINAK		
ABELTZAINA	HERRIA	ESNEA BI EGUNETIK (litroak)
Juan Jose Urroz	Donamaria	1.800
Jose Almandoz	Erratzu	1.300
Antonio Arburua	Orabidea	1.500
Jesus Mendiburu	Orabidea	800
Ander Elizalde	Urdazubi	1.800
Miel Mindegia	Zubieta	1.800
Fermin Galarza	Oderiz	5.000
GUZTIRA		14.000

Antonio ARBURUA | ORABIDEA

«Ilusioa ez da galdu behar baina etorkizuna ez dut sobera ona ikusten»



«Danonek pikutara bidali gaitu». Halaxe dio Orabideko Antonio Arburuak. Kexu da: «arrunt gaizki egin du. Beti egin dugu berak errandakoa, inbertsioak egin ditugu... eta orain inbertsio horiek ez dute ja balio. Gainera, egun batek bertzerera erran digu». Ez omen zuten halakorik espero: «gan den urtean trankil egoteko erran ziguten eta handik 6-7 hilabetera etorri da hau. Arras gaizki portatu da eta hori azpimarratu behar da».

Arburuatarrak aspaldi hasi ziren Danonerekin lanean: «kanpora saltzen hasi ginean, Copeleche enpresari saltzen genion, baina gutixago pagatzen zutelako eta gainera aisa luzeago pagatzen zuten, Danonerekin hasi ginen», kontatu digu Arburuak. Geroztik 25 bat urte pasatu dira. Urte hauetan bertze enpresetatik ere eskaintzak jaso omen dituzte, «baina guk Danonerekin segitu dugu». Orain arte «ongi» moldatu direla ere adierazi digu, nahiz eta aitortu digun enpresak «aunitz exijitu» izan diela, «baina guk beti berak errandakoa egin izan dugu». Exijentzia horietaz aritu zaigu: «esne kuota

«Guk beti Danonek errandakoa egin dugu eta egun batetik bertzerera etorri da hau. Arras gaizki portatu da»

kendutakoan, deskontuak egiten hasi ziren. Urteko kontratuak egin dizkigute, eta aitzinetik erran behar izan dugu zenbat ekoitziko genuen hila-bete bakoitzean. Aitzinetik errandakoa pasatuz gero, tonako 90 euroko deskontuak egin dizkigute hiruhilabetero», azaldu digu. Bere irudiko, «kuota mantendu izan balute, ez ginatke afera honetara ailegatuko».

Poliki-poliki behi kopuruan ere beheiti egin dute: «lehen, esnetako 45-50 behi genituen, eta gaur egun, 30 ditugu. Saltzen dugun esne litro kopuruan ere dezente jaitsi gara, behi gazta ere egiten baitugu». Hala ere, orain di-

tuzten behiak etxean mantentzeko asmoa omen dute eta bertze enpresa batekin akordioaren batera ailegatzeko itxaropena ere badute: «ez dugu oraindik sinatu, baina Kaikuk esnea hartuko digula erran digu». Otsail hondarrean egitekoa omen dute bertze bilera. Alde horretatik pozik dago Arburua, baina garbi mintzatu da: «ilusioa ez da galdu behar, baina etorkizuna ez dut sobera ona ikusten».

Jesus MENDIBURU | ORABIDEA

«Behi gazteak saldu eta gainerakoak haragitarako aprobetxatuko ditut»



«Orain guti arte gure beharra zutela eta gurekin kontent zirela erraten zuten eta begira orain zer egin duten». Jesus Mendibururen hitzak dira. Danoneren erabakiaren ondorioz bera da kaltetua izan den Orabideko bertze abeltzaina. Baserrian bakarrik bizi da eta lan aunitz egindakoa da. Jubilatzeke bi urte gelditzen zaizkio eta bitarte horretan orain arte bezala esnea saltzen segitzeako asmoa zuen. «Nahiz eta esnea duela 30 bat urteko prezioan saltzen dugun, honetan usatuak gara eta honetan segitzea erabaki izan dugu».

Orain, ordea, egoerak hala behartuta aldatetako egin behar izan ditu: «Bi egunetik 1.000-1.200 litro saltzera ailegatu izan naiz, baina Danonek esnea erosteari utziko diola erran digu netik behiak saltzen ari naiz eta orain 500 bat litro ekoizten ditut bi egunetik». Gaur egun, 35 behi ditu, horietatik 24 esnetakoak eta gainerakoak suitzarrak.

Ongi ezagutzen duen lanbidea da, aspaldi ari baita honetan: «nik 15 bat urte nituelarik aita esnea kanpora saltzen hasi zen. Garai hartan ez

zen karreterarik eta bi egunetik 80 bat litro saltzen genituen. Copelechekoak jeep batean etortzen ziren bila». Gurasoek hasitako biderei segitu zion Mendiburuk, eta orain dela 25 bat urte Danoneri saltzen hasi ziren, «Copeleche guti pagatzen zigulako». Geroztik Danonerekin «ongi» moldatu dela azaldu digu, baina berak ere, «beti exijenteak» izandu direla onartu digu: «urteko kontratuak egiten hasi zen, segurtasunagatik egiten zutela esaten zuten, baina ez dakit nik...», dio Mendiburuk.

Hortaz, martxo hondarrera arte Danoneri esnea saltzen segituko du, eta ondotik, «behi gazteak sal-

du eginen ditut eta gainerakoak haragitarako aprobetxatuko ditut». Bertze enpresaren batean aterik jo ote duen ere galdetu diogu Mendibururi, baina «ezet» erantzun digu: «baserrian bakarrik nago eta dena neronek egin behar dut. Lan honekin segituko duen norbait bilatzen ere saiatu naiz, baina ez dut inor harrapatu». Hortaz, esnetako behi batzuk kendu eta haragitarako segitzea izanen da bere apustua.

Ander ELIZALDE | URDAZUBI

«Danonek salmenta jaitsi dela erran digu eta bertze bati bikoitza ekoizteko»



28 urte baino ez ditu Ander Elizalde urdazubiarrak eta aitaren lana gustuko zuelako hasi zen bera abeltzaintzan: «hemen ez dago astebururik, baina gustatzen zait». Betidanik ikusi izan du aita behiekin lanean, kanpora esnea saltzen, eta duela bozpasei urte aitarekin bazkide hastea erabaki zuen. Gaur egun gazte gutik egiten duen apustua egin zuen, nahiz eta jakin abeltzainaren lanbideak dituen argi- ilunak.

Etxean duela 30 bat urtetik saltzen diote esnea Danoneri eta «orain urte batzuk arte ongi moldatu» direla erran digu Elizalde. Are gehiago, kontatu digunez, «inbertsioak egiteko dirua ere arreratzan zuten eta lagundu egiten zuten». Duela hiru urte hasi omen ziren gauzak okertzen: «urtetik urtera handik edo hemendik kentzen joan da, eta duela bi urtetik honat, esne kuota kendu zutenetik, egoerak okerrera egin du». Orduan hasi zen Danone urteko kontratua egiten eta horrekin kritikoa azaldu da: «urte osoan zenbat esne eginen dugun aitzinetik erran behar dugu, hilabetez-hilabete, eta hori ezin

«Dendan esnearen prezioa ikusten dudanean, tripako mina sentitzen dut, eta gainera, hori ez da esnea»

dugu jakin. Eta hasieran errandakotik pasatuz gero, deskontuak egiten hasi zen». Esne litroagatik ordaintzen dieten prezioa ere hilabetero aldatzen dietela gaineratu digu. Eta gero dendako prezioa ikustean «tripako mina» sentitzen duela onartu digu, «eta gainera, hori ez da esnea, erdi ura da. Hemen garbi dago, irabaziak erdikoentzat dira».

Joan den irailean jakinarazi zien Danonek bere erabakia eta Elizalde adierazi digunez, «erran zigunak ez zuten garbi zein zen arrazoa edo berak ere ez zekien. Salmentak beheiti egin duela, garraioagatik dela... Baina Artaxoako ekoizle bati bi aldiz gehiago ekoizteko erran diote».

Ziurgabetasunez begiratzan dio etorkizunari, are gehiago, Sorian ireki nahi duten 20.000 behiko ustiapenaren proiektua etorri zaionean burura: «hori hala bada, estatu espainiarraren goitiko aldean gauden abeltzain guztiak akabo gara». Kezkak kezka, berak apirilaren 1etik aitzinera Kaikurekin segituko du lanean: «esnea hartuko digutela erran digute eta horrek lasaitasuna ematen du».

Miel MINDEGIA | ZUBIETA

«Handiak nahi duena egiten du eta baserritarrak beti atzetik gabiltza»



Haserre. Halaxe mintzatu zaigu Miel Mindegia: «Danonek ez du hitza bete». Esnea kanpora saltzen hasi zirenetik Danonerekin aritu izan dira lanean, «35 urte baino gehiago badira», dio. Kontatu digunez, «orain dela 10-12 urte, Malerreko abeltzain asko Danonetik beste enpresa batzuetara aldatu ziren. Malerreka aldean gu bakarrik gelditu ginen, eta Danonekoek ez gintuztela esnea hartu gabe utziko esan ziguten. Hitza eman ziguten, eta ez dute bete».

Berak argi du: «handiak nahi duena egiten du, eta gu, baserritarrak, beti atzetik gabiltza».

Orain arte ez omen dute arazorik izan Danonekin: «zuzen kobratu dugu eta guk txukun-txukun egin dugu lan. Ez dugu penalizaziorik izan». Azken aldiaren aurrez adierazitako litro kopuruan pasatuz gero, enpresak deskontuak ezartzen ditu, eta «ez lukeela horrela lotua izan behar» uste duen arren, «alde horretatik aisa moldatu gara» dio.

Lan honetan hasi ziren garaiak ere gogoan ditu: «lehen haragitako behiak izaten genituen eta gero esnetakoekin hasi ginen. Hamabi behi jarri ge-

nituen eta horiekin dirua ateratzen zenuen. Baina orain duela 30 urteko prezioak ordaintzen dizkigute eta gastuak goiti doaz. Garai hartan dirua ikusten zelako inbertsioak egitera animatu ginen, beti haunditzen joan gara eta orain esan digute ez digutela kontratua berri-tuko. Hori ez da plana».

Etsetik kanpo topatu zuten Danonekoek erabakiaren berri ematera joan zirenean eta gero, telefonotik jakinarazi zieten: «haserretu egin nintzen, ez zu-

telako emandako hitza bete. Esnea nonahi bazutela, hurbilago, garraioa... Horiek aipatu zizkiguten». Ez zuen halakorik espero.

Kontua da esnetako behiak

kentzeko erabakia hartu behar izan dutela: «ez dugu bertze enpresaren bati esnea saltzeko asmorik. 40-42 behi jezten ditugu eta esnetako behiak kendu eta haragitakoekin eta ardiekin segituko dugu. Inbertsio handiak egin ditugu eta ahal dena egin behar da hemen». Beti honetan aritu direla eta horretan segituko dutela aitortu digu, baina Mindegia ustez, «baserritarrok etorkizun motza dugu, lan asko eta irabazi gutxi».

«Esnetako behiak kendu eta haragitakoekin eta ardiekin segituko dugu. Hemen ahal dena egin behar da»



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Sotilki

Hilketaren eszena da, fresko dago. Gertatu berri da. Ez da polizia zientifikoa etorri. Hildakoa bertan da. Hiltzailea ere, testiguak ere bertan daude. Hildakoa bertan da, baina ez dirudi hilik. Mugitu egiten da, baina isilik dago. Bost dira solasean. Itxuraz solasaldi atsegina. Baina itxura faltsua da. Hain faltsua, hiltzaileak ez duela hiltzaile itxuririk, ezta hildakoak hildakoearena ere. Solasaldiak atsegina dirudi. Baina konturatu orduko hiltzaileak labana atera du. Hain izan da azkarra, sotila, testiguenek ez dutela ikusi. Ez dira konturatu. Hain izan da azkarra, hildakoak berak ere, une batean, egin duela duda. Baina atera du labana eta zuzenean joan da bihotzera. Hitz bat, keinu bat, tonua... Ez dago argi. Baina hildakoak nabaritu du labankada, eta orain ziur dago. Hiltzaileak irribarre fin batekin eman dio amaiera gertakariari. Eta hildakoak burua makurtu du. Egiazki, ez da hilketarik eman, itxuraz behintzat. Baina hildakoa bertan da.

«Hain faltsua, hiltzaileak ez duela hiltzaile itxuririk, ezta hildakoak hildakoearena ere»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ba al dugu denera ailegatzerik?

Militantzia, boluntariora, inplikazioa... gaur egun galtzen ari diren baloreak direla aditzen dugu noiznahi. Norbere egitasmoa onena da guretzat eta ezin ulertu bertzeak hor buru-belarri ez murgiltzea. Baina ondokoak ere bertze proiektu bat dauka, gurea bezain garrantzitsua eta hark hura babesteko bertze ideia bikaina... Izan daiteke gai guztietara ailegatzeko gai ez garelara?

Nabarmentzekoak



Arantxa ARREGI
Kantu bazkarian omendua

Garapen agente izan zen denboran Baztan-Bidasoaldea sustatzeko egindako lana eskertuz omenduko dute martxoaren 11n Ibardingo Mendiko sagardotegiko kantu zaharren bazkarian.



Xabier IBARGARAI
Palan txapeldun orde

Hirugarrena omen da balekoa, baina ez da hala suertatu Erratzukoaren kasuan. Munduko pala txapelketaren finalera ailegatu da hirugarrenez, baina galdu egin du, orain Ibai Perezen kontra.



Argibel EUBA
Zubietako inauteak 1960an

1960. hamarkadako Zubietako joaldunak agertzen dituen *Baskerdokumenta* aurkeztu zuen inauterien ondoko larunbatean. Zubietarrek emozioz ikusi zuten suediar dokumentala.

Atzera begira → 2007-II-15 TTIPI-TTAPA 440 zk.



Baztango herrietako eskolen ekarpena bilduz Kazeta proiektua

Baztango herrietako eskola guzien ekarpena bilduz Kazeta proiektua izeneko liburua eta CDa argitaratu zuten duela hamar urte Nora Salbotx eta Xabier Ballarenak, Amair eta Oronoz-Mugairiko eskoletako irakasleek. «Hezkuntza munduko askorentzat tresna baliagarria izan daitekeela uste dugu, irakasle, guraso, zein hezkuntza zientzien eremuan diharduen kide askorentzako» zioten ahobatez. Duela hamar urte aurkeztu bazuten ere, aspalditik hasiak ziren lanean: «Proiektua orain zortzi urte jarri genuen abian, internet eta teknologia berrien inguruko kezka hori agertu zelako», aipatu zioten TTIPI-TTAPAri.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Mattin Laralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzrietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Lesaka eta identitatea

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Beti iduritu izan zait Lesakak hagitz identitate indartsua eta markatua duela. Hori ezaugarri ona izan liteke, norbere herriarekiko estimua eta atxikimendua erakusten dituenean, baina hagitz txarra ere izan liteke, identitateak komunitate bateko kide izateko modu bakarra sortzen duenean; izan ere, modu horrekin bat egiten ez duena, kanpoan utzi ohi da. Lesakan, lesakar izatea zer den ulertzeko modu bat da nagusi, eta horrek ematen dio forma soziala herriari. Ezaugarri horien arabera ezartzen da zein pertsona zaion leialago herriari, eta, azken finean, zein den lesakarra. Lesakaren herri identitate hegemonikoa eraikia dago balio eskuindar, kontserbadore eta gaztelaniazaleetan. Horrek ez du eragotzi azken hamarkadotan herri mugimendu dinamikoak sortzea, eta horiek aldaketa nabarmenak eragitea herrian, baina oinarrian identitate hertsia hori nagusi da Lesakan, eta ezaugarri identifikagarri batzuk ditu: abizena, familia eta jatorrizko etxea prestigioaren eta erreferentzialtasunaren adierazle izatea; gizona eta gizotasuna zentroan paratzea, eta emakumea bigarren plano batean gelditzea —maskulinotasunaren gorazarre indartsu horren eraginez, adibidez, feminismoak herrian presentzia txikia du oraindik, nahiz eta Euskal Herrian azken urteotan gehien indartu den mugimendu soziala izan—; herriko negozio eta elkarte batzuek osatzen duten botere faktikoen eragina eta ospea; herriko folklorea ulertzeko modua patrimonializatzea, tradizioa aitzakiatzat hartuta interpretazio itxi eta kontserbadore bat emateko; Eliza katolikoaren eragina herriko bizitza publikoan defendatzea, maila sinbolikoan bederen ikusgarritasuna mantentzeko; eta antolaketaren sozialetan eta politikoetan erabakiak hartzeko bertikalitasuna aplikatzea. Europa guziko eskuinak bezala, Lesakakoak ere defendatzen du identitate hegemoniko horren balioak ‘bertakoak’ direla, naturalki Lesakari dagozkionak; hortaz, horiekin bat egiten ez duenak, ez ditu herriaren egiazko interesak defendatzen. Arrazoiak horretan, bitxia da Lesakako eskuinak salbuespena egiten duela bertako hizkuntzarekin; izan ere, euskararen hegemonia eta normalizazioa defendatu beharrean, gaztelania identifikatzen du prestigioarekin, formalitatearekin eta normaltasunarekin. Ezaugarri horiek guziek osatzen duten identitate horren konstatazioa da herriko alderdi eskuindar bakarrak azken hamarkadotan hauteskundeetan erakutsi duen nagusitasuna. Bi aldiz galdu du alkatetza; 2011n argien, hauteskunderak garbi galduta, baina 2015ean babes handiarekin berreskuratu zuen. Lau urte horien ondoren frogatuta gelditu zen gauza bat: indar progresista batek hauteskunderak irabazteak ez duela erran nahi herriko soziologia aldatu denik. Horregatik, Lesakan aldaketa progresista bat egonkortzeko helburua dutenek, soziologia aldatzeko erronkari heldu beharko diote. Eta soziologia aldatzeko, Lesakan nagusi den identitate kontserbadore horren balioak deseraike beharko dituzte, atalez atal, eguneroko zinurri lanean.

Europarra izateaz lotsatu behar dut?

Juainas PAUL ARZAK

Europa kontinente bat da, ekialdeko Ural mendi haieetatik mendebaldeko Finisterre edota Portugalera sudurreraino zabaltzen den lurralde bat. Hori horrela izanik, barrenean sortu ninduten eta, ondorioz, europarra naiz, jaiotzez *-ez naiz inor Euskaltzaindiaren erabakiak kritikatzeko baina, nori otu zitzaion euro-parra?-*. Harira. Generalisimoa bizi zela, Francisco Franco, alegia, Europa ia amets bat ere bazen. Batzuentzat amets *politiko-ekonomiko-ideologiko-demokratiko* eta otuko zaizkizun *iko* guztiak biltzen zituen ideia izan zela esan daiteke. Hanpurutsu xamar iruditzen bazaizu, ez banauzu sinesten galdetu, galdegarai haieetakoei. Total. Egun gauzak ez dira hain garbi, handi eta baikor. Hobeki esana, larrez beterik daude iko-ak eta garbituko duenik ez da ageri. Nabarmenagoak dira iluntasunak kandelak baino. Motiboa egonik ere, ez dut kexu pertsonalaren helburua. Lotsagarria da hainbeste *iko* artean balore minimoak, txikiak, baztertzen ari garela. Nor gara gu agian traba egiten digutelako beharra duen jendeari etortzea debekatzeko? Trabar buruz luze hitz egin daiteke, miserablea izateaz aparte. Eta hemendik hainbeste lekuetara, konkistan batzuetan, joan garenean? Babesa eman digutenean? Eta gu hainbeste *iko* horien izenean zer? Gaztelu bat eraikitzen ari gara, babes erretenarekin = itsaso urez beteriko zanga, zulo dugu Mediterraneoan. Milaka itotzen direnek ez dute uholdea eteten, bulkatzen duen olatua beldurra baino indartsuagoa delako. Europak gotorlekuen laguntza behar du. Turkiako gobernu erosi-ordainduz, diktadura bat indartzen ari gara Turkian, kurduen suntsiketara bideratzen dugu han eta kanpoan. Guri zer? Beste muturrera etorri orain. Marokoko agintariak, Ceuta eta Melillako harresiekin garatutakoa areagotu nahi dute. Desagertuarazi nahi dituzte sahararrei lapurturik eta eurenak ez diren produktuak saltzeko Europak jartzen dituen itxurako oztopoak. Salmenta irekia eta inongo trabarik gabe onartu behar zaie edo non-nahitik datozenak Europara sartzeko asmoz ez dute armada eta polizia trabarik jasango. Hor konpon Europa!

Zein Europa, ordea? Hau da zurea? Zuk antzeko zer-bait nahi duzu? Hau duzu amets *politiko-ekonomiko-ideologiko-demokratiko* eta otuko zaizkizun *iko* guztiak biltzen duen batasuna? Ez. Inolaz ere ez. Lotsa, ordea, ez dator europarra izateagatik, Europak horren aurka ahal guztia ez egiteagatik baizik.

«Nor gara gu agian traba egiten digutelako beharra duen jendeari etortzea debekatzeko? Eta hemendik hainbeste lekuetara, konkistan batzuetan, joan garenean? Babesa eman digutenean?»

Irakurleak mintzo

Pertsonak
direlako!

Garaxi URTASUN, Izargi ZUMARRAGA eta Oihana RETEGI
(Baztandarren Biltzarra elkartearen izeanean)

Imajinatu Baztanen bihargerra lehertzen dela, Nazioarteko lau politikari burugaberen interes ekonomiko eta bostere nahiak itsututa. Bonben ezteandek hainbertze maite ditugun gure bazterrak, etxeak, familiak eta lagunak errauts bilakatzen dituztela. Zer eginen zenuke? Zure bizitza eta eskubideen alde borrokatu?

Ba hau gertatzen arida. Non? Munduko xoko desberdinetan, bertzeak bertze Sirian. Bertako biztanleak, bizirik iraun nahian, dena utziz ihes egin eta gure lurretara hurbildu dira. Baina guk muturren aitzinean atea itxi dizkiegu eta azienden pare pilatu ditugu Bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio esparruetan egiten zen antzera. Non daude pertsona hauen eskubideak? Eta non gure lotsa?

Pasa den urtarrilaren 27an HelpNa, Nafarroako suhiltzaile eta bolondre taldea, Baztanen izan zen Greziako errefuxiatuen kanpamentuetan bizitako esperientzia kontatzen. Testigantza gogor bezain errealak entzun eta ikusteko aukera izan genuen.

Pertsona hauen guzien bizi baldintzak zer bait hobetzeko helbu-

ruarekin Baztandarren Biltzarra elkartek diru bilketa bat abiatu du HelpNaren bitartez. Bildutako diru guziazuzenean iritsiko da kanpamentuetara.

Bakoitzak nahi eta ahal duen aportazio ekonomikoa egiteko Rural Kutxako kontu korrontea hau da: ES40 3008 0043 1126 5257 5719. (Laguntzeko epea martxoaren 10ean akitzen da)

Ez atzendu: errefuxiatuak baino lehen pertsonak dira.

Euskaltelen
desengainua

Xanti BEGIRISTAIN
MADOTZ (Auritz)

Espainiako hainbat telefonia mugikor konpainiarekin etsipen eta asperraldia jasan ondoren, egun batean erabaki genuen Euskaltelen probatzea, eta hura gure harridura, telefonoz esan zigutenean konpainia horretatik bertatik, beraien lan esparrua Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen zela! Zur eta lur gelditu nintzen ni behinik behin! Badakit, bai, zilegi dela eta eskubide osoa dutela horrela jokatzeko, baina, aizu!, nik pentsatzen nuen, EAeko sendeak solidarioago eta sentiberagoak izanen zirela bigarren mailako euskaldunok, hau da, Iparralde eta Nafarroa-

ko euskaldun errukariok, eta beharbada esku bat botako zigutela erdal ozeano honetan, guri laguntza pixka bat emateko, baina ez!, argi dago ez dela horrela, eta nik behintzat, egia esanda, ez nuen uste horretaraino iritsi ahalko ziren, baina bai!, horrelaxe omen da eta halaxe onartu beharko dugu.

Segituan, Euskal Wikipediaren entziklopedia askean begiratu eta honako hauxe jartzen zuten: Euskaltel S.A. 1995. urtean sortutako euskal telekomunikazio konpainia da. Lau alorretan banatzen du bere jarduerak, telefonia finko, telefonia mugikor, Internet (zuntz optiko, 4G, ADSL, WIMAX eta satelite bidezkoa) eta kable bidezko telebista. Euskaltelen egoitza Bizkaiako Zientzia eta Teknologia Parkean dago, Derioko udalerrian.

Datuak, gutxi gorabehera ongi baldin badaude, errepara dezagun satelite bidezkoa ere jartzen duela; hortaz, pentsatzekoa da beren uhinak Iparralde eta Nafarroaraino iritsarazteko ez dutela batez arazorik eduki behar, baina, hala ere, zerbitzua ez digute zabaldu lurralde hauetaraino, inolako errukirik gabe gainera, beraz, susmatu beharko dugu, gu ez garela oso garrantzitsu, interesgarri eta errentagarriak konpainia horretako buruzagientzat; penagarria!

Euskal Autonomia Erkidegoan, pertsona batzuek joera handitxo-

dute izen zabal eta erantzutsuak aukeratzeko, erakunde, konpainia, eta abar izendatzeko momentuan, baina gero, praktikaren benetako momentuan, ez dirudi oso kontsekuenteak direla izen horiek. Hona hemen adibide gutxi batzuk: Euskadi, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltel, eta abar. Horiek guztiak, euskal hitz asko edukita ere, gero, errealitatean, Euskal Herri erdia baino gehiago baztertu eta zokoratuta uzten dute.

Ai, ama, hau desengainua! Zer etsipena! Zeinen dezepzioa! Nolako etsi gaiztoa! Bai lilura-galtzea! Sinonimoak bukatu zaizkit...

Leitzako Erleta
eskolako
ordutegiari buruz

Joseba SAGASTIBELZA,
Arantxa BARRIOLA, Garbiñe SAGASTIBELZA, Joxe Fermin LIZARRAGA, Ivan OLANO (Leitzako Erleta eskolako gurasoak)

Gutako bakoitzak bere arazoak ditu jardunaldi jarraitua ikasurte batez probatzeko aukeraren alde ala aurka bozkatzeko. Gurasoak helduak baikara, ez dugu inoren arazoitzeko ahalmena gutxiesten. Alde bateko ze-

in besteko erabakia berdinduz gure zilegi.

Zentsoa 271. Ikasurte batez Jardunaldi jarraitua probatzearen alde 159. Jarraitua probatzearen aurka 97. Abstentzioa 15. Boto emaileen %62.11 eta zentsoaren %58.67 alde.

Hasieran azalduko arengatik, botoa ematera deitu gintuzten guraso guztiak berdinak baikara, alde bateko zein besteko botoei balio bera ematen diegulako, gutxiengoaren nahia nagusitzea da ulertzen ez duguna.

Hirurogeita bi botoak aldearekin irabazi zuten bozketa jardunaldi jarraitua probatzearen aldeko aukerak. Eskola komunitate osoa go-goan hartuz gero, berri, klaustroaren %100 eta eskola kontseiluen bozketan 9 alde eta 1 kontra gehitu behar diogu, nagusitu den gutxiengoare txikiagoa eginez.

Errespetagarria eta esanguratsua denik ez dugu ukatuko, baina gutxiengo nabaria.

Daukagun jardunaldi zatitua ez dugu guk aukeratu, are gutxiago orain. Horregatik, hezkuntza departamentuari, alde edo kontrako botoak baloratzeko orduan ematen den desoreka, hau da demokrazia eskasia, lehenbailehen zuzendu dezala eskatzen diogu.

Prensarako idatzi hau guraso batzuk sinatzen dugu, baina ziur gara, beste askoren babesa ere badaukagula.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Ideia erabakiak denen artean hartzea da, ekarpenak dakienean (bakoitzak dakienean eta maite duenean) eta iritzia ematea, baina ez da erraza eta inplikazioa lortzea dugu erronka. Batzordea berri behar denean, herriko bestak antolatu, edo txirringarritza proba bat, kostatzen da inplikatzeko. Orain, bilerak egiten ditugu herriz herri».

«Gerora begira ari gara eragiten, lurrarekin bertze harreman bat izan dezagun sus-tatzen. Software libre-arekin lan egiten dugu, Goiener koope-ratibari hartzen diogu energia eta banku eti-koan ere sartu nahi dugu. Oro har jendar-tea aldatzen ari da. Duela 10 urte zailagoa zen eta pentsatu nahi dugu hemendik 10 urtera jendea inplika-tuagoa egonen dela».

Koro IRAZOKI
Bidaziko idazkaria
GARA 2017.02.12

Hasier IRATZOKI
Bidaziko koordinatzailea
GARA 2017.02.12

11 galdera labur

Nor da Jaione Zabalo?

Ezkurran jaio eta bizi den perso-na arrunta, bere herria eta inguruak maite dituena.

Zenbaki bakoitiak edo bikoitiak dituzu nahiago?

Bikien ama izanik... bikoitiak, duda-rik gabe.

Zein afizio dituzu?

Familiarekin denbora pasatzea da. Hori bezalakorik ez dago!

Sortetxean bizi zarete...

Gurasoen kabia bezalakorik ez dago... bertan beti sentitu izan naiz etxean, babesturik.

Ezkurra kolorez beteko da laister...

Inauteriak martxoaren 4an izango dira eta ekitaldi desberdinak anto-latu ditugu: musikariak lagunduta herriari buelta, ipuin kontalaria, txo-kolatada eta jokuak eta gauean Triki-Bertsu-Afaria.

Zer dute berezia Ezkurrako inau-teriek?

Herri txikia izanik kaleak kolo-rez bete eta ohi ez bezala, ka-lean gora eta behera ibiltze-ko aukera ezin hobea dira. Adin guztietako jendea elkartu eta giro ederra sortuaz.

Herriari bizia emateko, lan egin behar da ezta?

Herri txikietan gero eta jen-de gazte gutxiago gelditzen da

eta adineko pertsonak ekintza des-berdinetan parte hartzea animatzea gehixeago kostatzen da. Hala ere la-nean ari gara eta harrera ona dute antolatzen ditugun ekintzek.

Mozorrotzeko ohiturarik baduzu?

Ohitura berreskuratzen ari naiz...

Mozorroa zuk egina edo erosia?

Mozorroa pentsatuak izaten dira baina, ahal dela, etxean ditu-gun gauzekin konpontzea gusta-tzen zait....

Ezkurako txokorik maiteena?

Gure familiaren etxeko inguruak . Bi-zitza osoko oroitzen gogo eta be-reziak gordetzen dituzte nerretzat eta lasaitasun iturri dira.

Amets bat?

Ezkurra nere on-dorengoentzat herri osasuntsu eta bizia izateko laguntzen ari nai-zela pentsa-tzea.



Jaione ZABALO → Ezkurrako herritarra

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe®
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 berà (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BERA KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
MA ORBEA CANNON SCOTT LOOK

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 11N MENDIKO SAGARDETEGIAN

Arantxa Arregi omenduko dute Ibardingo kantu bazkarian

26 emakumek osatzen duten Buhaminak abesbatza eta zeltiar musika jotzen duen Ivan Allue izanen dira berrikuntza nagusiak

TTIPI-TTAPA

Ibardingo Mendiko sagardotegian Kantu Zahar bazkaria antolatu dute aurten ere, martxoaren 11n. Larunbat horretan 14:00etan egingen den bazkariaren eta bertan banatuko den kantu liburuaren prezioa 45 eurokoa da. Gainera, urtetan Cederna-Garalur erakundearen eskualdeko garapen-agentea izan den Arantxa Arregiri omenaldia eskaintzeko aprobeztatuko dute.

Parte-hartzaileei dagokienez, batzuk ohikoak eta bertze batzuk berriak izanen dira. Ohi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ivan Alluek zeltiar musika eskainiko du.

koak, Angel Mariezkurrena (antolatzaillea), Aitor Mendiluze bertsolaria, Frantzisko Santxotena (eskujolea) eta Aitor Ibarra Jalisko (tron-

peta) izanen dira. Berrikuntza nagusiak, berriaz, Zuberoako 26 emakumek osatzen duten Buhaminak abesbatza eta Eskozia eta Irlanda-

ko zeltiar musika gaitarekin eta bertze hainbat musika-tresnekin jotzen duen Ivan Allue bilbotarra izanen dira.

Hiru urtez kantu afariak egin zituzten eta azken bi urteotan kantu-bazkaria antolatu dute Mendiko sagardotegiak eta Angel Mariezkurrenak. Eta, noski, taula gainera igotzen diren abeslari eta musikariak aditzeaz gain, bazkaltzera hurbiltzen diren guztiek kantuan aritzeko aukera ere izanen dute.

Izen-ematea edo erreserba 948 630302 edo 670 365011 telefonotan egin daiteke.

Kataku ostatuaren berrikeritze besta

Kataku herri ostatuaren berrikeritze besta egingen dute otsailaren 24an, ortziralean 20:00etatik aitzinera. 20:00etan atea ireki eta luntxa eskainiko dute. 22:00etan kontzertuak Le trois satellite, MUN eta Joseba Irazoki & Felix Buff taldeekin.

HITZALDIA ETA BISITA

Endarlatsa historian zehar ezagutzeko hitzorduak

TTIPI-TTAPA

Endarlatsak historian zehar izan duen garrantziaren aritzeko jardunaldiak antolatu dira. Hilaren 24an, ortziralean 18:30ean *Endarlatsako fusilamenduak*. *Santa Cruz apaiza* solasaldia eskainiko dute Beralandetan Jesus Arratek eta Aurelio Gutierrezek gaztelaniaz eta hilaren 25ean bisita gidatua egingen da Aurelio Gutierrezekin. Oinez joateko larunbat goizeko 9etan geldituko dira Herriko Etxeko Plazan eta autoz joaten direnak 10:30ean Endarlatsan bertan.

Bigarren Karlistadan, Santa Kruz apezak 28 karabinero fusilatu eta bertze 7 borrokan hil ziren Endarlatsan eta horiek gogoratuz, Basilio Lacort Larralde beratarren ekimenez monumentu bat eraiki zen. Monumentua ondare kultural izendatu dezala eskatu dio Udalak Principe de Vianari, dituen akats batzuk zuzenduz.

Caser
RESIDENCIAL

Zure ondoan,
gehien behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita
- Babespeko apartamentuak

www.caserresidencial.es

GIZARTEA → HITZARMENA GOBERNUAREKIN

Larrialdien kudeaketa sisteman sartu da herria

Nafarroan albienteak dituen lehen udalerrria da sistema honetan sartzen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Udalak polizien komunikazioko tresnak partekatzea hitzartu dute, Foruzaingoaren eta aguazilen artean larrialdien baterako kudeaketa egiteko, Tetra teknologia digitaleko irratzi-sistemaren bitartez.

Akordio hori arautzen duen lankidetzaz-hitzarmena berriki sinatu dute Nafarroako Jauregian Maria Jose Beaumont Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak eta Josu Irtzoki alkateak. Lankidetzaz horren azken helburua da Foru Komunitatean segurtasun publikoko zerbitzu «eraginkorra, azkarra eta in-

tegratua» sortzea. Era horretan, Bera izanen da Tetra irratzi-sisteman sartzen den albiente-zerbitzudun lehenengo udalerrria, Nafarroan udaltzaingoa duten udal guztiak baitaude dagoneko sistema horretan sartuta. Hitzarmen horri esker, Foruzaingoak eta Udalak larrialdietako sistema bakarra partekatuko dute, polizia-eta segurtasun-baliabideen erabilera koordinatua eta eraginkorra lortzeko. Larrialdi bat gertatzen denean, Foruzaingoaren Agintaritza eta Koordinazio Zentroak aguazilen kokalekua ezagutuko du geokopakenerako sistema baten bitartez, eta albinteak zuzenean komunikatu ahal izanen dira aipatutako zentroarekin, portofonoen bitartez.

Udalak hartuko ditu bere gain irratzi-telefono terminalak erosteko, programatzeko, kontserbatzeko eta horiek GPS sistemara egokitzearekin lotuta sor daitezkeen gastuak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Musika Eskolako pianojoleak Andoainen sarituak

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako zazpi ikasle sarituak izan ziren otsaileko lehen asteburuan Andoainen burutu zen XII. Piano jaialdian. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko, Lapurdiko eta Nafarroako 758 pianojolek parte hartu zuten eta Mari Jose Bergararen ikasleek zilarrezko domina bat eta urrezko 6 domina lortu zituzten. Bakarlarien A mailan (12 urte arte), Luka Newell-ek (8 urte) zilarrezko domina lortu zuen eta Ainhoa Elgorriagak (8 urte), urrezko domina eta aipamen berezia. Sei eskutako A mailan (12 urte arte), urrezko domina eskuratu zuen Axuri Zapiain, Onintza Goia eta Saioa Garciak osatutako hirukoteak. Hiruek zortzi urte dituzte. Bakarlarien B mailan (14 urte arte), azkenik, Nahikari Loiartek eta Leire Ruizek urrezko domina bana lortu zuten. Biek 13 urte dituzte. Azpimarratzekoa da Ainhoa Elgorriagak lortu zuen aipamen berezia (denetara 20 eman ziren 758 partaideen artean) eta gainera, epaimahaiak bukaerako kontzertuan parte hartzeko aukeratu zuen.

MARTXOAREN 4AN

Hazien Eguna antolatu du Bidasoko Hazien Sareak

Bidasoko Hazien Sareak antolatutako Haziaren Eguna bi saiotan egingen dute aurten ere. Lehenbizikoa Beran izanen da martxoaren 4ean. Larunbat horretan 10:30ean hasiko da Rikardo Baroja eskolako idorpean.

Han mahai batzuk izanen dira, ekartzen diren haziak paratzeko, eta noski, han direnak nahi dituenak hartzeko. Mahai horien inguruan, hazi bakoitzari buruzko ezagutzak elkarbanatuko dituzte: nondik lortuak diren, noiztik egiten dituzten, horietatik sortzen diren landareak no-

lakoak diren, zein berezitasun dituzten... Hamaiketako eskainiko dute. Eguerdiko aldera solasaldi irekia ere egingen dute. Bakoitzak zer ikasi edo zeri buruz mintzatu nahi duen erran ahal izanen du, eta gai horien arabera taldetan bildu eta ari-tuko dira.

Besta borobiltzeko, eta segitu nahi dutenentzat, bazkaria egingen dute Etxalarko Txokoan.

Astebete beranduago, martxoaren 11n Lekarozen ere egingen dute Hazien Eguna, Hazitik Hozie eta Legate taldeen eskutik.

tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

BAR
BOTXO
OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 11N

Tobera tailer eta bertso-trama arrakastatsuak Aiako Harrien magalean

Nafarroa Oinez lehen jarduera handia

Aitor AROTZENA

Oiartzun eta Lesakak bat egin dute Nafarroa Oinez 2017ko lehen kultura ekimenetan, otsailaren 11n Aiako Harrien Oiartzungo magalean egindako bi jardueretan.

Lehenik, Arditurrin tobera tailerra eskaini zuen Soinuenea Fundazioak, eta 60 bat lagun gerturatu ziren. Tartean Lesakan toberaren ohitura berpiztu zuen Dionisio Muxikaren bilobak zeuden, Arritxu eta Iratxe Muxika. Dioni eta Patxi aita eta osaba lagun zutela tobera jo zuten, eta musika tresnaren inguruan zenbait azalpen aditu eta gero, bertze batzuk ere animatu ziren tobera joztera.

Ondotik, Arritxulo aterpea txiki gelditu zen Amets Arzallus, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Eneko Fernandezek

eskainitako bertso-trama aditzeko. Agiñako errepidea eta Aritxulegiko tunela bortxaz egin behar izan zuten *trabajadoreen* inguruko trama landu zuten lau bertsolariak, Iban Garro gai-emaeleak emandako gidoiarekin. Eneko Fernandez *trabajadore* izandako Donatoren larruan aritu zen, Alaia Martinek honen emazte Ireneri eman zion ahotza, Amets Arzallus zaindari lanetan aritutako Jose izan zen, eta Andoni Egañak inguruko baserri bateko Segundo nerabearen paperean abestu zuen. Bertso-tramaren bukaeran jendea zutik, txalo zaparrada luzea eskaini zieten. Gainera, *Baserri* bertsolaria frankismoko langile behartuetako bat izaki, bere bertso zaharrak kantatu zituzten herriko eta Oiartzungo bertso-eskolako ikasleek.

Guztiari behar bezalako bukaera emateko, 70 bat lagun Arritxulon bertan antolatutako aforian izan ziren.



ARGAZKIAK: NAFARROA OINEZ

Tobera tailerra Arditurrin eta bertso-trama Arritxulon.



ARGAZKIA: TXEBI ARRIAGA

Euskal Herriko 600 kiloko finala herrian martxoaren 4an

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketan 600 kiloko finala jokatu da martxoaren 4an udal pilotalekuan. Herriko taldeak bertan izateko lehen urratsa eman zuen otsailaren 11n Bermeon (argazkian), bigarren izan baitzen.



BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
 Bidasoa, 76 - atea 21-22
 31780 BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
 sagardotegia jatetxea

 Alasta karrika
 BERA NAFARROA
 TLF: 948 625 474

- Lentzeria
 - Bainujantziak
 - Mertzeria
 - Jantzi tipikoak
 - Peñen blusak

kattagorria
 lentzeria mertzeria
 Beheko plaza 10 31770 Lesaka
 T. 948 627 514

IRU BIDE
 Erregetgia · Asador

 Biurrana, 3 · Lesaka
 Tel: 948 637 127

GIZARTEA → MARTXOAREN 11N ADUNARA

Urtero bezala sagardotegira irteera antolatu dute gazteek

Martxoaren 1ean bukatuko da izen emateko epea

da apuntatzeko epea Herriko Ostatuan edo Elutsan 20 euroko seinalea utziz.

Irune ELIZAGOIEN

Martxoaren 11n Etxalarko gazteak Adunako Zabala sagardotegira joanen dira. Autobusa eguerdian 13:00etan aterako da herri sarrerako aparkalekutik eta goizeko 4etan itzuliko da. Martxoaren 1a arte izanen

'Etxalarko Hilarriak' liburua aurkeztuko du Pello Apeztexeak

Otsailaren 24an, ortzirale arratsaldeko 6:30ean, Pello Apeztexeak *Joandakoen oroi-garriak*; *Etxalarko Hilarriak* liburuaren aurkezpena egingen du Kultur etxean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pello Apeztexea herriko hilarriak aztertu ditu.



ARGAZKIA: JONE BIZENTE ETA ARANTXA MIKELESTORENA

Etxalarko Arkupeak elkarteko kideen besta

Arkupeak elkarteko Etxalarko ordezkariak otsailaren 12an, bazkideekin egiten duen urteroko besta antolatu zuen. 12:00etan meza izan zen hildako bazkideen oroimenean eta ondotik 29 lagunek elkartasuneko bazkaria egin zuten Herriko Ostatuan. Bazkalondan Arkupeak antolatutako herriko mus txapelketa jokatu zuten 4 bikotek. Irabazleak Benantxio Elizagoien eta Manuel Arrosamena izan ziren, bigarrenak Joxemari Olagarai eta Domingo Aranburu eta hirugarrenak Jose Luis Arretxea eta Joxemari Maia. Etxalarko txapelkun eta azpitxapelkunak martxoaren 16an Doneztebeko finalera joanen dira.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

JAIONE-COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

BORDALARRIA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 11N

Ehun bat trikitilari eta panderojole bilduko dira martxoaren 11ko Trikitixa Jaialdian

Pantaleon Errandonea omenduko du Udalak

Nerea ALTZURI

Iaz burutu zen lehenbiziko edizioa eta arrakastatsua izan zen. Aurtenera, trikiti eta pandero soinuak nagusituko dira frontoian, bertze urte batez, Trikitixa Jaialdia antolatuko baitu Udaleko Kultura Batzordeak martxoaren 11rako.

Herriko trikitilari eta panderojoleez gain, inguruko hainbat eskoletako soinuariak bilduko dira: Doneztebeko Agorreta Musika Eskola, Etxalarko trikitilariak eta Elizagoien ahizpak, Berako Irats Trikitixa Eskola eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola, Lesaka Trikitixa Eskola eta Lesakako Udal Musika Eskola, Martin Aginal-

deren Trikitixa Eskola (Ornoz-Mugairiko trikitilariak) eta Aurtizko Mendaur Trikitixa eta Panderojoleen Eskola.

Bertzetik, joan den urtean bezala, Azpeitiko Sahatsa Dantza Taldeko dantzarien emanaldiak ere tartekatuko dira saioan. Eta bukaeran, Pantaleon Errandoneari omenaldia eskainiko dio Kultura Batzordeak.

17:00etan hasita, arratsalde polita pasatzeko modua izanen da. Parlaide guztientzat oroigarriak izanen dira eta zozketak ere izanen dira. Publikoaren artean, Arantzako Hotelean spa saioa zozketatuko da.

Emanaldirako sarre-ra 5 euro izanen da eta 12 urtez behetikoek ez dute ordaindu behar.

Udaleko Kultura Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie jaialdi hau antolatzeke laguntza eskaini duten guztiei.

MARTXOAREN 11 BOROBIITZEKO

Pelle-Ttikiren 10. urteurrena eta Gure Esku Dago Bertso Afaria

Pelle-Ttiki Haur Txokoa koxkortzen ari da eta 10. urteurrena ospatzeko, trikitixa jaialdiak irauten duen bitartean, haurrentzako tailerrak izanen dira. Horrez gain, hamar urteko ibilbidearen argazki erakusketa ere ikusgai izanen da. Auniz urtez!

Bertzalde, martxoaren 11 borobiltzeko, Gure Esku Dago bertso afaria izanen da Ekaitza Elkartean, Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Afarirako txartelak salgai daude herriko ostaluetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Inauteriak joan dira

Irudi ederrak utzi dizkigute aurtengo inauteriek. Mozorro Zuriak, neska eta mutil, argazki polita izan da aurtengoa. Gazteak eta gaztetxoak, denak ere, giro ederrean ibili ziren puxka-puxka baserri eta etxeetan barna. Eskolako mozorro besta ere polita; emakumeen afarian eta bertso afarian giro ederra, baita ondotik Beñat eta Fernandok eskainitako dantzaldian ere; mozorro kalejira eta lehiaketa ere arrakastatsua izan ziren. Lehiaketan, 16 urtetik behetik kategorian, palomita-saltzaileak izan ziren garaile, eta helduetan, berriz, Euskal Herriko Olinpiar Taldea, euren karroza eta guzti. Ondotik, jendetza elkartu zen Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako finalerdian, eta Xabier Orbegoza Arria V.a eta Joseba Otaegik finalerako txartela lortu zuten. Errifan zozketan, berriz, Jose Manuel Igoa eta Xebe Iparragirre izan ziren sarituak. Gaez ere herritar eta bisitari aunitz hurbildu ziren herri ingurura eta dantzaldia izan zen Gorapean Belfast eta Ohar-kaberekin... Hurrengo urtekoak ailegatzeko guttiago gelditzen da...

FLASH

Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia aurtan Arantzan

Aurtan Arantzan egingen da Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia, martxoaren 5ean. Emakumeak 09:00etan aterako dira plazatik eta Meakara igo ondotik, Argatsorora joanen dira, gero Senberrokoborda azpitik Pilotasorora eta Zakuteneko bordatik Putzu beltzera. Gero, Arruzpin barrena herrira itzuliko dira. 13:00etan elkarretaratzea egingen da plazan eta ondotik, bazkaria Pabloan. Joan nahi dutenek martxoaren 2a baino lehen eman beharko dute izena (948 635036).

Ekaitza Elkarteko batzar orokorra

Martxoaren 3an, 20:00etan Ekaitza Elkartean, batzar orokorra egingen da. Azken urteko kontuak azaltzeaz gain, bazkideen iritziak eta proposamenak bilduko dituzte. Zuzendaritzak bazkide guztiei parte hartzeko dei egin die.

GIZARTEA → MARTXOAREN 8AREN INGURUAN

Emakumeen Egunak hainbat ekitaldi ekarriko ditu

Gizarte Zerbitzuek eta Berako Goldatz emakume feminista taldeak antolatuta

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Bortzirietao Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Berako Goldatz Emakume Feminista Taldeak.

Martxoaren 4an, larunbat arratsaldeko 5etan, *Emakumeon gorputza: minik gabeko erditze konsziente* hitzal-

di-tailerra eskainiko du Estitxu Fernandezek Beralandetan. Gero, trikipoteoa egingen dute eta bukatzeko kantu afaria.

BORTZIRIETAKO EMAKUMEEN MENDI ITZULIA ARANTZAN

Bortzirietao Oinarriko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Bortzirietao Emakumeen VIII. Mendi Itzulia Arantzan egingen dute martxoaren 5ean. 09:00etan Arantzako plazatik aterako dira eta Meakara igo ondotik, Argatsorera joan dira, gero Senberokoborda azpitik Pilotasorora eta Zakuteneko bordatik Putzu beltzera, Arruzpin barrena herrira itzultzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Presoen aldeko argazki lehiaketako lanak postal bihurtu dituzte

Bortzirietao preso eta iheslarien sustengurako taldeek bultzatuta argazki lehiaketa antolatu zuten eta ostatuetao eta dendetan jarri zituzten ikusgai. Sei bozkatuenak postal bihurtu dituzte orain (irudian horietako bat) eta «orain urrats bakarra falta zaigu, postalak, presoei, iheslariei zein deportatuei bidaltzea». Lehiaketan modu batean edo bertzean parte hartu dutenei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek: «Gizartearen inplikazioa nahitanahiezkoa da, eta hau maila ezberdinetakoa izaten ahal da, argazki lehiaketa honen adibidea da, batzuek argazkia bidali dute, bertze batzuek ostatu eta dendetan bozka eman».

13:00etan elkarretartzea egingen dute leku berean. 14:00etan bazkaria Pabloenean (Prezioa: 20 euro). Izen emateko azken eguna martxoaren 2a izanen da. Horretarako, 948 635036 telefonora deitu behar da.

Martxoaren 5ean, arratsaldean margo erakusketa bati hasiera emanen diote eta bi astez egonen da ikusgai.

Martxoaren 7an, astearte arratsaldeko

4:30ean Lesakako Harioondo Kultur Etxean, *Cuidarse para cuidarse* hitzaldia eskainiko du Alzheimer eritasuna dutenen senideak biltzen dituen AFAN elkar-teak.

Martxoaren 8an, asteazkenean 12:30ean elkarretartzea egingen dute Toki Ona institutu- an eta 13:00etan filma eskainiko dute Kultur Etxean. Beti bezala, 20:00etan elkarretartzea egingen dute Mu-

kixu zubian.

Martxoaren 10ean, ortziralearan 18:30ean, *Gutik Zura* dokumentala eskainiko dute Etxalarko Kultur Etxean.

Martxoaren 12an, igandean 18:00etan *Sufragistas* filma eskainiko dute Berako Beralandetan.

Martxoaren 19an, igandean 18:00etan, *Beraren konkista* antzezlan eskainiko dute Berako Kultur Etxean.

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

GIZARTEA

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOALDEAN

‘Herrian erosi, euskaraz erosi’ merkataritza kanpaina abiatu da eskualdean

Kanpainarekin lotuta, argazki lehiaketa ere antolatu dute Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuek

TTIPI-TTAPA

Azkeneko ikerketa soziolinguistikoetan argi islatzen da Baztan, Malerreka eta Bortzirietako bezeroek esker-tzen dutela zerbitzua euskaraz jasotzea. Gainera, kontuan hartu behar da eskualde honetan euskaraz ongi hitz egiten duten hiztunak %80 inguru direla. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuek eskualdeko merkataritza bultzatzeko kanpaina bateratua abiatu dute dagokien esparrutik, euskararen sustapenetik.

Otsailaren 10ean Malerrekako Mankomunitatean egindako prentsaurrean udal ordezkariak eta Denok Bat Federazioko kideek jakinarazi zuten, kanpainaren lelo nagusia *Herrian erosi, euskaraz erosi* izanen da. Aukeratu duten irudiak euskaraz

erosi nahi duten pertsonen egindako keinu positibo bat adierazi nahi du. Baztan-Bidasoaldeko udalen ordezkari, Joseba Otondo Baztango alkatea, Marga Erdozain Doneztebeko zinegotzia eta Mentxu Peña, Arantzako zinegotzia izan zen agerraldian eta Denok Bat Federazioko ordezkari, Helena Santesteban (Berako Larun Haizpe elkarte), Deñe Abuin (Lesakako Merkataritza eta Zerbitzuen Elkarte) eta Zuzen Karraskedo (Bertan Baztan) izan ziren agerraldian.

Kanpainan parte hartzeko irizpide bakarra zehaztu dute: saltoki, ostatu edo enpresako langileek gutxienez euskara ulertu beharko dute. Kanpainan parte hartzea dohainik izanen da.

Kanpaina honen bidez hainbat euskarri paratuko dituzte merkataritza eta ostalarien esku: *Irekita/Itxita* kartel txikia, *Ordutegia* kartel txikia, *Merkealdia* kartela eta atean paratzeko bi binilo honako mezua hauekin: *Gurekin euskaraz lasai aski*, zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna dutenendako eta *Poliki baina euskaraz*, euskaraz ulertze-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Kanpainaren aurkeztu zuten merkataritza eta udal ordezkariak. Behean, logotipoa.

ko gai direnendako. Bi mezua hauekin mahai-gainekoak ere sortu dituzte.

ARGAZKI LEHIAKETA

Kanpainari indar emateko eta bezeroak inplikatzeko asmoz, argazki lehiaketa bat ere egingen dute. Argazkiak kanpainan parte hartzen duten saltoki edo ostatuatan atera beharko dira eta gaia honako hau izanen da: Euskara eta merkataritza.

Lehiaketan, erosketaren txarteletan 150na euroko bi sari banatuko dira, lehena argazkia egin duen pertsonari, bigarrena argazkia aterata dagoen saltoki edo ostatuari. Argazkiak aurkezteko epea otsailaren 20tik apirilaren 7ra izanen da eta argazkia *Herrian erosi, euskaraz erosi* kanpainan parte hartzen duten saltoki edo ostatuatan aterata egon beharko du. Hauek, otsailaren 28a baino lehen adierazi beharko dute lehiaketan parte hartzeko asmoa dutela, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuekin harremanetan jarritz.

Argazkia whatsapp bidez bidaliko da 638 529 785 telefono zenbakira.



BEZEROARI KONFIDANTZA ETA HURBILTASUNA

«Bere hizkuntzan aritzeak bezeroari ematen dio nolabaiteko konfidantza bat, hurbiltasun bat eta erosoago sentituko da zerbitzu berri hau eskainita. Aunitzek egunero egiten genuen, baina nolabait euskaraz dakitenei egiteko aukera dutela eta ikasten ari direnei ere animatzeko adierazteko modua da».

Zuzen KARRASKEDO
Denok Bat Federazioa

KEINU POSITIBOA

«Euskaraz erosi nahi dutenei keinu positibo bat helarazi nahi diegu. Kanpaina Euskara Zerbitzuen ekimenez sortua da, baina garbi dago merkatariekin elkarlanean egin behar dela, herritar guztiengana ailegatzeko».

Marga ERDOZAIN
Doneztebeko udal zinegotzia

GIZARTEA → BOLUNTARIOAK LORTU NAHI DITUZTE

Baztan-Bidasoko GR ibilbideen mantenimendua abiatu da

Nafarroako Mendi Federazioak garatuko du, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren laguntzaz

TTIPI-TTAPA

Iazko udazkenean inauguratu zen Izpegin Baztan-Bidasoko GRen (Ibilbide Luzeak) sarea. Guztira 208 kilometro

dira, horien artean GR-11 (Transpirenaika) eta GR-12 (Euskal Herriko Bidea) ezagunak, eta GRT Bidasoa eta GRT Kulunka ibilbide berriak. Proiektua Nafarroako Mendi Federazioak garatu zuen, bideak markatzeko boluntario talde baten laguntzaz; horren antolakuntzan Baztan-Bidasoa Turismoa elkargoak parte hartu zuen.

2017an ibilbide sare horren seinalizazioa mantentzea da helburua, boluntario taldea



UTZITAKO ARGAZKIA

GR ibilbideak mantentzen boluntario aritzeko izena eman behar da otsailaren 28a bitarte.

indartuz. «GR ibilbideak baliabide turistiko garrantzitsua da Baztan-Bidasoan, gure herriak, bailarak eta paisaia oinez ezagutzeko bide seguruak dira; ez bakarrik mendizale trebeentzat, baita ohiko ibiltarientzat ere. Horregatik ekimen honetan parte hartzen dugu,

2017an gure helburuetako bat da» dio Mikel Albisuk, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren lehendakariak. Elkargoak bere bazkideen eta Baztan-Bidasoko biztanleen artean boluntarioak biltzeko kanpaina abian jarri du, erronka handi batekin: eskualdeko GRen man-

tenimendua bertako boluntarioen bidez egitea.

Boluntarioa izateko izen-emateko epea otsailaren 28an bukatuko da. Gero oinarriko formazio ikastaro bat egingen da. Informazioa eta izen-ematea: info@baztan-bidasoa.com / 948 592 323 (goizez) / 659 477 396

GIZARTEA → MENDEURRENAREN HARIRA

Ia 5.000 lagunek bisitatu zuten iaz Tren Txikitoaren erakusketa

Arrakastatsutzat jo du Baztan-Bidasoa Turismo Garapenak

TTIPI-TTAPA

Irun eta Elizondo lotzen zituen Bidasoko Trenaren mendeurrena dela eta, Cederna Ga-

ralurreko Baztan-Bidasoa Turismo Garapenak, erakunde publiko eta partikularren laguntzarekin, iazko ekaina eta abendu artean Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekan barna ibili den erakusketa ibiltaria antolatu zuen.

Antolatzaileek, esperientzia «hagitz positibotzat» jo dute, ia-ia



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bidasoko Trenaren mendeurrenako erakusketa Zubietan.

5.000 bisitari pasatu baitziren erakusketatik eta bertaratu direnek arras iritzi onak utzi baitituzte bisita-liburuan.

Baztan-Bidasoa Turismo Garapenak Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerreka aldeko herriko etxeen lanbidetza eta inplikazioa

eskertu du, baita EuskoTren/Euskal Burdinbidearen Museoaren, Manuel Cariñena eta Juan Mari Telletxearen eta Gamioa Etxearen ere, balio handiko materiala uzteagatik.

Bidasoako burdinbidea, 1898. urtean sortu zen Endarlatsako

meatzak eta Irun lotzeko. 1916ko otsailaren 1ean Doneztebera zabaldu zen eta 1916ko maiatzaren 28an, Elizondora, bidaiariak garratzen zituen trenen bihurtuz. 1956ko abenduaren 31n bere azken bidaia egin zuen, Elizondotik Irunera.

SUNBILLA



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako ttikienak Iruñeko Erraldoiak ikustera joan ziren, eskolan proiektu bat landu eta gero. Ederki pasatu zuten.

FLASH

Inauterietako argazki lehiaketa

Inauteriak pasatu diren honetan argazki lehiaketan parte hartzeko aukera ere akitu da eta irabazlearen izena hurrengo TTIPI-TTAPAN jakinaraziko dugu.

Meza ETBn

Otsailaren 11, 18 eta 25ean Euskal Telebistako kamerak Sunbillako mezak grabatzen ari dira eta otsailaren 12, 19 eta 26an goizeko 10etan telebistan ikusteko aukera izanen da.

GIZARTEA → ATERALDIK EGITEN ARI DIRA HARAT ETA HONAT

Jarduera osagarriak egin dituzte eskolan

Ikasle handienak
Izaban daude
eskiatzen
Saldias,
Labaien eta
Narbartekoeekin

Maider PETRIRENA

Sunbillako eskolak zenbait jarduera osagarri antolatzen ditu urtero eta aurten aldaketa eta nobedade aunitz izanen dira. Lehen aldiz 5. eta 6. mailako 12 ikasleak, Saldias, Labaien eta Narbarteko ikasle eta irakasleekin batera eskiatzera joan dira, otsailaren 19tik 24ra Izabara. Ekitaldien egutegian ere aldaketarik izanen da, bigarren hiru hilekoan ospatzen zen Malerrekako eskola ttikien joku topaketa aurten hirugarren hiru hile-

koan, ekainean ospatuko baita.

Irteerak egiten ere segituko dute bigarren hiru hilekoan. Lehen hiru hilekoan Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako bi lehendabiziko mailako ikasleak Iruñeko Erraldoiak ikustera joan ziren, eskolan proiektu bat landu eta gero. Hagitz ongi pasatu zuten. Bigarren hiru hilekoan, ikasle horiek berak Donostiara joanen dira, Zientzia Museoa bisitatzen eta ondoren txikiparkera. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailakoak berriaz Bilboko Guggenheim bisitatzen.

Eskolako kontuekin segituz, aipatu 2017-2018 ikasturteko aurre-

matrikulazio epea ere akitu dela. Sunbillako eskolan hurrengo ikasturtean zenbat neska mutiko berri izanen diren hurrengo aldizkarian aipatuko dugu.

Arkupeak elkartekoak besta

Arkupeak Elkarteko bazkideen bestak ospatzen hasiak dira. Sunbildarren txanda martxoaren 5ean izanen da. Goizeko 10etan meza. 11etan mus txapelketa Ariztigain Kanpinean, eguerdian bazkaria eta ondoren sari banaketa izanen dira. Apuntatzeko herriko delegatuek joan behar da, Juan Antonio Iba - rrearengana.

Ba al zenekien

Otsailaren 5eko arratsaldea iluna eta tristea izan zela herrian. 7 orduraz argirik gabe egon ginen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 5ean hasiko du denboraldia Koldo Herrerak mendi bizikletan

Koldo Herrera Urroz gaztea berriz ere BTT lasterketetan parte hartzen hasiko da. Caja Ruralek antolatzen dituen karreretan parte hartuko du eta guztira sei lasterketa izanen ditu. Denboraldiari hasiera martxoaren 5ean emanen dio Unzue herrian. Ondoren martxoaren 19an Kaskanten izanen du lasterketa. Jarraian apirilaren 23an Ilunberrin, maiatzaren 28an Zangozan, ekainaren 4an Lizarran eta uda pasa ondoren irailaren 27an Arazurin. Zorte ona izan dezazula!

OSPAKIZUNAK → EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA

Martxoaren 8ko ospakizunek Aste Morea osatuko dute

Martxoaren 10ean Mendi abesbatzaren emanaldi berezia eta 12an 'Testurak' bertso-saio literarioa izanen dira

Marga ERDOZAIN

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguneko ospakizunak Malerrekako Mankomunitateko Prebentzio batzordearekin eta Mendaur Institutukoekin elkarlanean lotu dituzte, egitarau anitza osatuz: **martxoaren 7an** (astearte), Herrigunean *Sufragistas* filma pantailaratuko dute; **martxoaren 8an** (asteazkena), goizean Mendaur Institutuak antolatutako lila-lasterketa, flashmobie eta berdintasun horma ekimenak burutuko dira; arratsaldeko 8etan zineman Firin-Farandula antzerki taldearen eskutik antzerki emanaldia izanen da; **martxoaren 9an** (ortzeguna) Malerrekako Mankomunitateko egoitzan Ines Bengoaren eskutik ipuin erotikoen emanaldia; **martxoaren 10ean** (ortzirelean) Kasino elkartearen arratsaldeko 8etan, Mendi Abesbatzak emanaldi berezia prestatuko du: musika, abestiak eta antzerkia uztartuz eginen du saioa. Ondoren, Herrigunean, afora izanen da. **Martxoaren**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendi Abesbatzak ere emanaldi berezia eskainiko du Emakumearen Egunaren harira.

12an (igandea) zineman arratsaldeko 6:30ean *Testurak* izeneko bertso saio literarioa. Gai jartzaile: Amaia Agirre. Bertsolariak: Oihana Iguaran, Saioa Alkaiza eta Ane Labaka.

Ba al zenekien

Udalak Alde Zaharrek PEAU izeneko plan urbanistikoaren nondik norakoa burutzeko herritarrek egindako 121 inkesta kontuan hartuko dituela. Bertan doneztebarren kezka, iritziak eta iradokizunak jasoak gelditu dira. Esker mila, inkestan parte hartu duten guztiei.

2017-18 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIOA MARTXOAREN 1ETIK 15ERA

Askin Haur Eskolak Ate Irekien jardunaldia eginen du martxoaren 4an

Marga ERDOZAIN

Martxoaren 4an (larunbatean), goizean ate irekien jardunaldia burutuko da. Egun horretan Askin haur eskola bertatik ezagutzeko aukera izanen da, bai egoitza, nola heziketa proiektua eta lan taldea ere. Udalak 2017-18 ikasturterako aurrematrikula martxan jarri du, martxoaren 1etik 15era. 0-3 urte bitarteko umeendako zerbitzu hau erabili nahi duten familiak udal bulegoetatik pasatzen ahal dira informazioa eta dagokion dokumentazioa eskatzeko. Askin Haur Eskolak D eredu eska-

intzen du. Familiek eskola-egun osoa (jantokia barne) edo eskola-egun erdia (jantokia barne) aukeratzeko ahal dute. Aurrematrikula bukatu ondoren, udalak eskaerak aztertuko ditu eta behin-behineko zerrenda kaleratuko du. Maiatzaren 19tik 26ra behin betiko matrikula egin ahal da. Ikasturte berria heldu den irailan hasiko da eta 2018ko uztailaren erdialdera bitarte luzatuko da. Prezioei dagokienez, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak haur eskolak arautzeko ezarritako irizpideak jarraituz finkatuko direla.

AGENDA

AFAN elkartearen tailerra

Norberak bere burua zaindu zaintzaile izateko izeneko tailerra eskainiko dute otsailaren 24an (ortzirelea) Malerrekako Mankomunitatean arratsaldeko 4etan. AFAN taldeak antolatutako hitzaldia da (Nafarroako Alzheimerren duten senideen elkarte).

Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoa

Iratxe kontsumitzaile elkarteak debalde eskaintzen duen zerbitzuaren egunak honako hauek dira: otsailaren 24a eta martxoaren 10 eta 24a. Hitzordua lortzeko 948 451746 telefonora deitu behar da. Zerbitzu Mankomunitateko egoitzan emanen da.

Heziketa emozionala lantzeko tailerra

Mendaur eta Erreka Guraso elkarteak antolatutako tailer hau martxoaren 2an (ortzeguna) Mendaur institutuan burutuko da. Hau da gurasoei zuzendutako ikasturteko hirugarren tailerra. Hitzordua 15:00etatik 16:30era izanen da.

Martxoko ipuin txokoak

Martxoko ipuin txokoaren hitzorduak honako hauek izanen dira: martxoaren 7, 14, 21 eta 28an. Asteartero 11etatik 12etara musika eta ipuinaz gozatzeko txokoa izaten da, 0-3 urte bitarteko umei zuzendua. Haizea Loria, musika-terapeuta, zuzendutako txokoa da.

ITUREN

HEZKUNTZA → GURASOEN BOZKETA

Pulunpa eskolan ez dute lanaldi jarrairik ezarriko datorren ikasturtean

Gurasoen erdia baino gehixeago alde egon arren, %60a behar zen ordutegia aldatzeko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako hainbat eskoletan bezala lanaldi jarraia izateko edo orain arte bezala segitzeko bozketak egin ziren Pulunpa eskolan eta honako hauek izan ziren emaitzak. 66 lagunek zentso batetik 65ek eman zuten botoa, beraz parte-hartze handia izan zen. Jardu-

naldira jarraien aldeko botoa 34 lagunek eman zuten, kontrakoak 29, eta xuriak 2. Horren ondorioz, %51,5ek eman zuten lanaldi jarraien aldeko botoa, %44ak ezezkoa, %3ak xuria eta %1,5ek ez zuten bozkatu. Hau dena kontuan izanik eta jardunaldi jarraia ezartzeko %60 beharrenez, datorren ikasturtean ez da jardunaldi jarraia ezarriko, 6 botoen faltan. Eskolatik eskerrak bidaltzen dizkiete familia guztiei izan duten parte-hartzeagatik.

Aurrematrikula

Aurrematrikulazio kanpaina otsailaren

13tik 17ra izan da. Eskolatik aipatu digutenez beraien prebisioetan, 6 haur izanen dira izena emanen dutenak eta heldu den ikasturtean 72 ikasle izanen dira Pulunpa eskolan.

Herritar bertsolariak

Alazne Untxalo, Iker eta Egoitz Gorosterrazuk Nafarroako bertsolari txapelketan hasiak dira. Beraz, 30 parte hartzailetatik 3 herritar izanen dira. Alazne Untxalo izan da *jokoan* sartzen lehena. Joan den igandean aritzekoa zen Auritzen, Xabier Terreros, Saioa Alkaiza, Alazne Untxalo, Patxi

Castillo, Ior Tainta eta Joana Zigandarekin batera. Gorosterrazu anaia, berriz, otsailaren 26an, igande honetan ariko dira Lakuntzan, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Oier Lakuntza eta Joanes Illarregirekin batera. Ea martxoan eginen diren hiru finalurrekoetako batean ikusterik baditugun!

Eskola berria

27 urtez eskola berriaren esperoan egon ondok martxan dago jada Eskola berriaren proiektua. Horretan buru belarri dabil udala eta 2018 edo 2019rako martxan egotea espero da.

Trikidantz txantreko erraldoiekin ikuskizunean

Pasa den otsailaren 12an Txantreko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa galaz jantzi zen Trikidantz taldearekin batera. Konpartsa Txikiaren 25. Urteurrena ospatzeko ikuskizun paregabea antolatu zuten. Dantza, zuzeneko musika, antzerkia, erraldoiak, kilikiak, mitologia, glamour eta bertze hainbat osagarri osaturiko ikuskizuna. Eskenatokia hamaika gonbidatu igo ziren, eta horien artean, baita Trikidantz taldekoak ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Diamantezko Ezteiak ospatuko dituzte Auritzen hilaren 27an

Aurtizko Manuel Mindegiak eta Rosalina Elizalde otsailaren 27an 60 urte ezkondurik egingen dituzte. Diamantezko Ezteiak ospatuko dituzte familiarekin.



armadenda

andueza



Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 22TIK 25ERA

Egitarau zabalarekin datoz aurten ere inauteriak

TTIPI-TTAPA

Aurten ere Narbarren inauteriak ospatu-ko dira, hainbat herritan bezala, otsailaren 22tik 25era bitarte. Herritarrek hainbat mozerro prestatu beharko dituzte. Adin guztietarako egitaraua eta otorduak izango dira.

OTSAILAREN 22 ASTEAZKENA

- 16:00 herriko plazatik abiatuko dira herriko haur eta gurasoak baserrietan barna mozerroturik herriko musikariekin.
- Ondoren txokolatada plazan denendako.

OTSAILAREN 23 OSTEGUN GIZEN EGUNA

- 10:00 Eskolan elkartuko dira mozerroturik eta herriko etxeetan ibiliko dira akordeolariekin herria alaituz.
- 13:00 bazkaria.
- 16:00 haurrentzako jokoak (oilarrapakea...). Ondoren berendua denentzat.

OTSAILAREN 24A, ORTZIRALEA

- 21:00 Herriko afaria mozerroturik. Tartean mozerroturik onenen sari banaketa ere egingen dute.
- Ordu txikiak arte DJ



UTZITAKO ARGAZKIAK

Haur, gazte eta heldu, denek izanen dute ongi pasatzeko aukera egunotan Narbarren.

Txingudiren eskutik dantzaldia.

OTSAILAREN 25A, LARUNBATA

- 11:00 Gosaldu ondo-

ren etxez-etxe ibiliko dira ltxaso eta Irune trikitilarietara alaituz herria.

- Ilunabarrean saskien zozketa egingen da.

Zorte on denei.

Herritar guztiak animatu nahi dituzte inauterietan parte hartzera, «giro ederrean pasako ditugu aurten ere».

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ZUBIETA

GIZARTEA → EZ DIRA EDOZEIN TOKITAN UTZI BEHAR

Traste handiak etxetik biltzeko telefonora deitzea eskatu du Udalak

Mankomunitateak eskaintzen du denon artean ordaintzen dugun zerbitzua

Fermin ETXEKOLONEA

Argazkian ageri denez, oraindik orain, jendeak traste handiak eta hondakinak edozein bazterretan bota edo edukiontzien ondoan uzten ditu eta hori ezin daitekeela onartu ohartarazi dute Herrik Etxetik. Oroitarazten dutenez, bada Mankomunitateko telefono bat (672 045734) traste handiak etxetik jasotzeko zerbitzua eskaintzen duena eta ea bada ohitura hartzen dugun deitzeko: «Denon artean ordaintzen dugun zerbitzua da eta ea erabiltzen dugun».

Iturri Nafarroako txapelketan

Ander Fuentes *Iturri* herriko bertsolariak parte hartuko du aurten ere Nafarroako Bertsolari txapelketan. Martxoaren 5ean Uhartan egingen den final-laurdenetako azken saioan kantatuko du Eneko Fernandez, Sarai Ro-

bles, Xabier Maia, Irati Majuelo eta Oscar Sanz de Acedorekin batera.

Gutik Zura


Gutik Zura dokumentalaren emanaldia eskaini zuten Doneztebe-ko zineman otsailaren 5ean. Beste hainbat protagonisten artean Miel Mindegia eta Xanti Hualde herritarrek egurrekin eta zurarekin duten harremanaren berri ere ematen du ikusentzuneakoak.

Herriko langileak

Langileak hartzeko deialdia egin du Udalak Enplegu Zerbitzuaren bitartez, udaberriaren hasteko. Errotazain eta herriko lanetan aritzeko izanen dira lanpostuak.

Buruhaundi tailerra

Buruhaundi tailerra antolatu du Udalak. Bir-bira taldeko Ines Gerekak eta Amaia Zinkunegik eskainiko dute 14 urtetik goitikoei zuzendutako ikastaroa eta buruhandiak herriarendako geldituko lirateke. Doan izanen litzateke. Hau antolatzeko bilera otsailaren 22an egitekoa zuten. Martxoan eta maiatza artean egiteko asmoa dute, hamar saio ikastaroa.



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Oraindik orain, jendeak zaborra eta traste handiak uzten ditu edukiontzien ondoan.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

1960. hamarkadako inauteriak ikusteko aukera

Argibel Euba ikerlariaren hitzaldia izan zen otsailaren 4an Zubietako eskolan. 100 lagun inguru elkartu ziren eta oso aurkezpen polita izan zen, 1960. hamarkadan Euskal Herriko kulturari buruz Dan Grenholm eta Lennart Olson suediarrek grabatutako dokumentalen inguruan. Adin guztietako jendea izan zen bertan. Proiektuaren nondik norakoa aurkeztu ondoren, bi filma eskaini ziren eta horietako batean, garai hartako Zubietako inauteriak ere ageri ziren. Hunkigarria irudietan azaltzen ziren batzuk bertan izatea. Zubietarrak aski gustura egon ziren, eta bertaratutakoek, inauteriei eta joaldunei buruz inoiz ikusi zituzten irudi zaharrenak ikusteko aukera izan zuten. Liburua nahiz DVD-a salgai daude eta horretarako, eskaera egin behar da Zubietako udaletxean.

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 25EAN, LARUNBATEAN

Egun beteko inauteak heldu dira

Bertsolariekin egingen dute karrika erronda lehen aldiz

Markel LIZASOAIN

Egun osoko inauteak prestatu dituzte aurretan, eta denentzat izanen da dibertsioa. Hondarreko urteetan utzixekak egondu dira, eta baserrietako buelta ere atzendumaxa dago, bai-

na gazteak gogotsu heldu dira, eta aurrekoen lekukoa hartu nahi dute, herriari bixigarria emateko. Berritasun batzuk ere badira. Eratsunen urteroko ohitura badute ere, Saldiasen berritasuna da bertsolariekin egitea karrika erronda. Soinularirik ere ez da faltako! Erronda, jakina, majo bazkaldu ondoren izanen da, eta iluntzean, berriz, afaria.



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

2012ko inauteak, Intxureko bordan.

MUS ETA MOZORRO SARIKETAK

Goizean, mus jokoa egingen dute ostatuan, 10:30etan. Bakoitzak 5 eurorena paratu eta biltzen dena bikote finalistarentzat izanen da trofeoarekin batera. Aur-

tengo beste berritasuna, jendea gehiago animatu aldera, mozorro lehiarena da: mozorrorik hoberenak afariaren ordainak irabaziko ditu; erronda akitu eta afalurrean kantatuko dute bertsolariek saria no-

rentzat den. Hona hemen programa:

- 10:30etan mus txapelketa.
- Bazkaria.
- Karrika erronda.
- Mozorro politenaren saria.
- Afaria.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko goren
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



EZKURRA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 4AN

Bertso eta triki afariak borobilduko ditu inauteriak

Goizean frontoian bilduko dira mozorroak eta arratsaldean ipuin kontalaria izanen da Udaletxean

Fernando ETXEBERRIA

Aurten ere inauteriak antolatu ditu Herriko Etxeak. Martxoaren 4rako prestatu dituzte eta ospakizunerako egitarau zabala izanen da. Nahi duenak badu non gozatu eta ongi pasa!

10:00etan Frontoian bilduko dira, nahi duena mozorrotuta, eta ondoren herrian barna musikaren laguntzarekin ibiliko dira.

16:00etan ipuin kontalaria Udaletxean. Ondoren jokuak eta txoko-

latada frontoian. 21:00etan Barranka Ostatuan bertso-triki-afaria izanen da, Mendizabal eta Telleria bertsolariek eta Oihana eta Oihana trikitilariak alaitua.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mozorroak janzteko aitzakiarik ez da izango martxoaren 4an. Egun osoko inauteri ospakizun polita antolatu dute aurten ere.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko herriko bazkideen festaren lekukotza

Aurreko alean aipatu genuen bezala, Arkupeak elkarteko herriko bazkideek urtarrilaren 22an egin zuten beraien urteko ospakizuna. Hamabost lagun bildu ziren Barranka ostatuan. Argazkilariaren akats batengatik festa horren lekukotzarik ez zela ere aipatu genuen, baina informatikan aditua den lagun baten lanari esker, gainean ageri diren bi argazki horiek berreskuratzeko modua izan da. Horra beraz, aurtengo ospakizunaren lekukotza.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



BETIKO

Nafarroako Gobernuak diru laguntzak emanen ditu LEIHOAK eta KONTRALEIHOAK aldatzeko.



BETIKO LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU





* 70 mm

PVC-zko sistema bakarra* Passive house ziurtagiriarekin BETIKO daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hoberena.

A+++

ELKARTEA → OTSAILAREN 6AN ETA 13AN, HURRENEZ HURREN

Bidaien eta ikastaroen batzordeek beraien bilkurak egin dituzte

Adinekoentzat elikadura egokiari eta iktusari buruzko hitzaldiak antolatu dira

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bidaien batzordea bildu zen otsailaren 6an, bidai-agentzia ezberdinek urteko bigarren erdian egin behar diren ateraldien proposamenak aztertzeko. Eskaintza horiek aztertuta, Gaztela-Leonera irailaren 18tik 23ra egingen den bidaia Viajes Ike-mevoy agentziaren bidez egingen da; urriari Benidormera egin behar den bidaia Viajes Barcelóren bidez eta Lanzarotera azaroaren 1etik 10era egin behar dena Eroski Bidaiak agentziari.

Ikastaroen batzordea berriaz otsailaren 13an bildu zen, hauek behar bezala planifikatzeko. Maiatza bitarte bederatzia ikastaro emanen dira Donezteben, Leitzan, Oronoz-Mugairin, Elgorriagan, Urdazubin, Beran eta Elizondon eta 139 bazkidek parte hartuko dute. Yoga eta informatika ikastaroak dira ikasle gehien izanen dituzten ikastaroak. Aurtentzen bi solasaldi antolatu ziren eta zehazki, horietako batean adineko jendearentzako zein den elikadura egokiena azalduko dute Beran eta Elizondon



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Eratsungo mus txapelketako txapeldun eta txapeldun ordeak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Almandozko Beolan jokatu zuten mus txapelketako lau bikote onenak.

(iaz Donezteben eta Leitzan egin zutela kontuan hartuz) eta bertzea iktusari buruzkoa. Eritasun gogorrenetakoa da iktusa eta erretiratu askori larri eragiten dio. Hau Leitzan eta Donezteben eskainiko dute.

HERRIZ HERRIKO FESTAK ETA MUS TXAPELKETA

Arkupeak elkarteko bazkideen herriz herri-

ko festak urtarrilaren 22an hasi ziren Ezkurraren. 15 bazkide bildu ziren Barranka ostatuan. Hurrengo igandean 29 bazkide bildu ziren Eratsungo lokal egokitu batean. Herriko mus txapelketa ere jokatu zuten eta Migeltxo eta Javier suertatu ziren txapeldun, Jose Luis eta Emilio bigarren, Migel eta Juanito hirugarren eta Calixto eta Tolare

laugarren.

Otsailaren 4an Almandozen bildu ziren Baztango Basaburu aldeko eta Oronozko bazkideak. Meza aditu eta gero Beola jatetxean bazkalduta zuten. Mus txapelketan zortzi bikote aritu ziren eta Oronozko Jose Antonio Braña eta Jose Zelaia suertatu ziren txapeldun, Zigako Alberto Azpiroz eta Victoriano

Mendiburu bigarren eta Almandozko Andres Landa eta Celestino Agerrebere hirugarren.

Otsailaren 11n Leitzan jokatu zuten herriko mus txapelketa zortzi bikotek. Luzio Irazokik eta Patxi Iparragirrek lortu zuten txapela, finalean Migel Zabalera eta Juanito Zabalera irabazita; hirugarren postua Jenaro Sagastibeltzak eta Brigida Azpirozek lortu zuten eta laugarrena Isabel Huartek eta Josefina Artolak.

Hilaren 12an Etxalaroko bazkideen txanda izan zen. Hauek meza ondotik Herriko Ostatuan bazkalduta zuten eta bertan jokatu zuten mus txapelketa ere. Benantxio Elizagoien eta Manuel Arrosamena suertatu ziren txapeldun, Joxemari Olagarai eta Domingo Aranburu txapeldunorde.

Hilaren 15ean, Ordoiki erretegian Baztangoza, Urdazubi eta Zugarramurdiko 80 bazkide bildu ziren eta hemen ere mus txapelketa jokatu zuten.

Bazkide gehienek herriko besta otsailaren 19an ospatzekoa zuten. Zehazki, Beran, Iparralde, Irun, Beintza-Labaien, Saldias, Leitzan, Areso, Larraun, Donamaria, Gaztelu, Oiz, Urroz, Doneztebe, Ituren, Zubietan, Elgorriaga eta Arantzakoak biltzekoak ziren eta zenbaitetan mus txapelketa ere jokatzen zuten. Honen berri hurrengo alean emanen dugu.

LEITZA

OSPAKIZUNAK → OTSAILETIK AZARORA BITARTE

Ekimen ugari antolatu dituzte Udaletxearen 100. urteurrenaren harira

Herriko memoria bildu eta lantzeko helburuarekin

Juan Mari BARRIOLA

1917ko abuztuaren 11n Udaletxe berria inauratu zuten garai hartako agintari eta herritarrek. Urte bat baino gehiago iraun zuten berrikuntza lanek eta, besteak beste, ezker aldeko eta eskuinaldeko nabe edo eranskinak gehitu zitzaizkion eraikinari. Ordutik eraikinaren barruan hainbat lan egin diren arren, kanpoaldek ez du beste aldaketarik izan.

Urteurren hori aprobetxatuz herriko memoria dantzan jarri nahi izan du Udalak eta urte osoko egitaraua osatu du. Hala, otsailean hasi eta azarora arte, egitasmo



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eraikinaren barruan zenbait lan egin diren arren, kanpoaldek 1917ko itxura bera du.

ugari izanen dira, baita zenbait sorpresa ere, herriko historia bildu eta lantzeko helburuarekin.

Otsailaren 18an, eman zioten hasiera programari Udaletxean jarritako argazki erakusketaren inaugurazioarekin. Erakusketa iraunkorra izanen da eta egunero egonen da zabalik. Bertan, Udalak 1915ean onartutako eraikin berriko planoak eta herri-

ko argazki zaharrak ikusteko aukera izanen dute bisitariek.

'LEITZA ARGAZKI ZAHARRETAN' LIBURUA

Mendeurrenaren aitzakian hiru helburu nagusi jarri dituzte: Udala herritarrengana gerturatzeko, Leizako altxorak biltzeko eta lan horretan auzolana bultzatzeko. *Leitza argazki zaharretan* liburuan bilduko dituzte

helburu guztiak. Kultur Aroaren baitan aurkeztuko dute eta Leizako memoria bilduko duen euskarria izanen da. Bertan, 1915eko udalak onartutako planoak, udaletxe barruan izandako jarduerak eta herriko argazki zaharrak jasoko dira. Liburuko argazkiak auzolanean bildu dira eta herritarrek 3.000 argazki inguruko ekarpena egin dute.

FLASH

Lilatoirako entrenamenduak

Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuek Lilatoian parte hartu nahi dutenentzako entrenamenduak antolatu dituzte. Nahi duenak taldean entrenatzeko aukera du, astearte eta ostegunetan, 19:00etan poligono hasieratik abiatuta.

Martxoaren 3an antzerkia Atekabeltzen

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, gaueko 10etatik aurrera, Miren Amuriza bertsolariak eta Eider Eibar ilustratzaileak *Kapulana bat zintzilik* lana eskainiko dute Atekabeltzen.



ARGAZKIA: ALKE

Santa Ageda bezperako eskea

Aspaldiko usadioari jarraituz, otsailaren 4an Santa Ageda Bezpera ospatu zen herrian. Haur eta gazteak eskean ibili ziren herriko etxe eta baserrietan. Iluntzean ALKE Kultur Taldeak antolatuta, bertsolari eta trikitilarien laguntzarekin kalejira bikaina egin zuten herriko kaleetatik kantuan eta bertsoetan. Bukatzeko plazan mokaduxoa jan eta freskagarriren batzuk edateko aukera izan zuten.



ARGAZKIA: LEITZAKO UDALA

Erreketak era kontrolatuan bakarrik egiteko ohartarazi du Udalak

Mendiak garbitu eta arriskuak ekiditeko asmoz, erreketak modu kontrolatuan egiteko plangintza bat lantzen hasi zen duela urte batzuk Udako Mendi Batzordea. Hori dela eta, erreketak egin nahi dituenak baimena eskatu behar du eta protokolo bat segiz, sute kontrolatuak pizten dira. Otsailean Sakulu inguruan kontrolik gabeko sute bat izan zen eta horregatik Udalak gogorarazi nahi du baimena eskatu gabe ezin dela sua mendian piztu, arrisku handiak sor litezkeelako. Bide batez, Udalak eskerrak eman nahi dizkie Leizako suhiltzaile bolondresei eta Nafarroako Gobernuako suhiltzaile eta mendizainei. Oso azkar erantzun eta sua berehala itzali zutelako.

ONDAREA → OTSAILAREN 9AN JAKINARAZI DUTE

Iberoko dorrea konpontzeko 450 mila euroko inbertsioa egingen du Nafarroako Gobernuak

Diru horrekin eraikina bere osotasunean konpon liteke

Juan Mari BARRIOLA

Aurreko legealdietan egindako lanarekin jarraituz, Leitzako Udal Gobernuak Goizuetako Udalarekin batera, Iberoko Erdi-Aroko dorre eta konplexu arkitektonikoa berreskuratzeko ahaleginetan aritu da hainbat hilabetez. Badi-rudi lan horrek fruituak eman dituela, 2017. urtean Iberoko dorrea berreraikitzeke 450.000 euroko inbertsioa egingen duela iragarri baitu berriki Nafarroako Gobernuak.

PARLAMENTARIEN BISITA

Otsailaren 8an bisitatu zuten Nafarroako Parlamentuko, Kultura, Kirola eta Gazteria Batzordeko kideek Iberoko eremua eta biharamunean, Fernando Perez Gomez, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaria, etorri zen bisitan. Guztiek, bertatik bertara ikusi ahal izan zuten erdi aroko eraikin multzoak duen egoera kaxkarra. 2006. urtean dorrearen teilatua erori zenetik asko hondatu da eraikina eta burdinola ere landareak eta lohiak hartuta dago.

Otsailaren 9ko bisita aprobetxatuz, Leitzako eta Goizuetako udalek, Iñaki Sagredo arkeologoak Iberori buruz egindako txostena eman zioten eskura Fernan-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ezkerrean Iberoko dorrearen egungo egoera. Eskuinean otsailaren 8an bisitan izan ziren ordezkariak.



do Perez zuzendariari. Bisita honen ondotik iragarri zuen zuzendariak, Nafarroako Gobernuak Iberoko dorrea berreraikitzeke 450.000 euroko inbertsioa egingen duela 2017an.

EKARPEN GARRANTZITSUA

Leitza eta Goizuetako Udalek oso ongi baloratu dute Nafarroako Gobernuak egindako ekarpena «oso garrantzitsua da bi udalentsat Erdi-Aroko burdinolak dituen arazoei irtenbidea ematea eta ondare garrantzitsu hau zaintzea». Izan ere, Leitzako Udalak orain arte egindako inbertsioa «ez da aski izan eraikinak sendotzeko». Nafarroako Gobernuak agindutako diruarekin

EGOERA

2006

URTEAN

dorrearen teilatua erori zenetik asko hondatu da eraikina eta burdinola ere, landareak eta lohiak hartuta dago.

eraikina bere osotasunean konpondu ahal izanen da. Lanak eraikinaren kanpoaldean zein barrualdean egingen dira, hala nola, teilatua konpondu, hormak berritu eta indartu. Gainera, Iberoko burdinolaren historia eta ondarearen garrantzia azalduko duten panelak dorrean jartzeko asmoa dutela

Ondare historiko eta kulturala

Iberoko burdinola XVIII. mendera arte martxan egon zen industriagunea da, eta osorik kontserbatu da, kanpoaldean aldaketa handirik jasan gabe. Erdi Aroko dorrea XIV. mendean eraiki zen burdin ekoizpena babesteko eta ondoan baserri bat ere badago. Sarrerako zubia Erdi Aroko begi bakarrek zubi gotikoa da, eta egoera onean dago.

Leitzako Udalaren esku

Leitzako Udalaren esku geratu zen 2008an, herriko suteen aurkako elkarte desegin zenean. Ordu-ra arte elkarte honen eskuetan zegoen, ondarea eta ingurua zaintzeko konpromisoarekin. Vianako Printzea Erakundeak 2014an ondasun inbertariatuko deklaratu zuen.

ere aipatu dute bi udalek. Adierazi dutenez «Iberon zonaldeko historiaren zati bat eta altxor handi bat dago. Mende askotan inguruko ekonomiarentzat garrantzitsua izan zen

burdinola. Eta etorkizunean ere, hala izatea nahiko genuke. Iberoko dorrea eta inguruek ezaugarri bikainak dituzte eskualdearen garapena eta turismo jasangarria bultzatzeko».

GOIZUETA

GIZARTEA → 2017KO UDAL AURREKONTUAK

Zabortegia ixtea eta ospitaleko obra izanen dira urteko inbertsio handienak

Aurrekontua izan zen otsailaren 11n egindako herri batzarrean landutako gaietako bat

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 11n burutu zen herri batzarrearen balorazio positiboa egin du Udalak. Hala ere, aurrera begira, hurbildu ez ziren herritarrei deia luzatzen diete eta animatu herri batzarretan parte hartzeko, «udal gaiez informatzeaz gain, kontsultak egiteko eta iritzia emateko tartea ere bai baitago denontzat».

Batzarrean landu ziren gaien artean udal aurrekontuak zeuden. Diru kontu orokorrak azaltzeaz gain, aipamen berezia egin zaie eta inbertsio garrantzitsutzat jo dira zaborteziaren itxiera eta ospitaleko obra.

ARTIKUTZA

Beste aldetik, Artikutzako ZEC izendapenaren inguruan aipame-

na egiteaz gain, itxiturak kentzeko asmoa ere aipatu zen, honek era berean animaliak kontrolatzeko beharra sortzen duelarik. Donostiako Udalak urtegi kentzeko hartua duen erabakiaren eta emango diren urratsen berri ere eman zen. Artikutza eta honek Goizuetari ekarriko liokeen turismoaren inguruan, herritar batzuk egin zuten bileran eztabaidatutakoaren berri ere eman zen.

AZKEN HILABETEEN ERREPASOA

Azken hilabeteen errepasoa egiterakoan, ondorengo gaiak aipatu ziren: Nafarroan egiten ari den hausnarketa prozesua Tokiko maparen inguruan; Nafarroako Gobernuak 450.000 euro inbertituko dituela Iberoko dorrea berritzen; Zubimuxu aterpean egingo den sukaldea eta lizitaziora ateratzeko asmoa; etxebizitza lantaldeak egindako lana (etxebizitzari buruz eta herria bizileku bezala hobetzeari buruz jasotako ekarpenak); Fernando Goiaren kontratazioa...



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezperan, tabernaz taberna kantari

Duela zortzi bat urte Umore Ona abesbatzak abiatutako ohiturari eutsiz, eta eguraldi euritsuari aurre eginez, Santa Ageda bezpera kantuz bete zuten Goizuetan otsailaren 4an. 30 bat lagun atera ziren santa eskean larunbat arratsaldean, trikitilariak eta Josu Garmendia eta Manolo Arozena bertsolariak lagun zituztela. Kalez kale eta tabernaz taberna giro bikaina jarri zuten eta Zahar Etxeko bizilagunei ere kuku egin zieten.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

'Goizuetarrok ere hemen gaude' festa

Ekainean herri galdeketa egiteko beharrezko sinadura bilketari bukaera emateko otsailaren 11n, 'Goizuetarrok ere hemen gaude' festa burutu dute Goizuetan, Gure Esku Dago ekimenaren eskutik. Larunbat arratsaldean ikastolako atarian mural margoketa egin zuten umeez, eskulanak, txokolatada, dantzaldia, argazki murala eta sinadura bilketa ere egin zuten. Umore Onako herri afarian ere giro polita izan zuten.

MARTXOAREN 8AN ETA 9AN

Emakumeen afaria eta ipuin kontalariak

Gizarte Zerbitzuek antolatuta, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira martxoaren 8an emakumeen afaria egingen dute 20:00etan Umore Ona elkartearen.

Martxoaren 9an, Amaia Elizagoien eta Olaia Inziarteren eskutik *Zazpiak oihal batetik* helduentzako ipuin kontaketa izanen da Udaletxeko Ganbaran 19:00etan.

KULTURA → HIRUGARREN ALEA

Panpanoziri aldizkaria prestatzen

Argazki zaharrak lortu nahi dituzte

Juana Mari SAIZAR

Panpanoziri aldizkaria osatzen duen lantaldea hasia da urte bukarran kaleratuko den aldizkaria prestatzen. Horretarako beste behin ere, herritarrei laguntza eskatu nahi diete. Informazio eske joaten bazaizkizue, garai bateko eta

gaur egungo kontuez galdezka, eskertuko dute zuen laguntza eta edozein ideia ere ongi etorria izango da. Norbaitek zuzenean parte hartu nahiko balu, hurrengo bilera martxoaren 6an 17:30ean egitekoa dute. Argazki zaharrak biltzeko ahalegin berezia ere egin nahi dute. Argazkiak uzten dituztenei, argazkiak eskaneatu eta jabeari berehala bueltatzeko konpromisoa hartu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa

Otsaileko lehenbiziko asteburuan jokatu ziren Euskal Herriko mus txapelketako Aresoko kanporaketak. Larrea eta eta Pake Toki elkarteek parte hartu zuten eta finala otsailaren 4an Sastienean jokatu zen. Gorka eta Imanol izan ziren txapelkunak eta txapelkunordeak Migel eta Josetxo.

FLASH

Nekazaritzako ibilgailuen azterketa otsailaren 24an

Nekazaritzako ibilgailu eta motorren inspezio teknikoa egiteko aukera izango da autobus geltokian. Otsailaren 24an goizean.

Udaletxeko igogailua martxan jarri dute

Oztoporik gabe, Udaletxean gora eta behera ibiltzeko aukera izango dute herritarrek aurrerantzean, martxan baitago Udaletxeko igogailua.

LEITZALDEA

TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probestu aukerak!

<p>Aritzela DEKORAZIO TALERRA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11</p>	<p>edr'igunea</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>ETXE TRESNAK S.L.</p> <p>%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>FISIOETXEA Ane Egzabal Lata Fisioterapeuta</p> <p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uharte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p>Garbi drogeria - lurrindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>
<p>gatzelu sol Iturgintza</p> <p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>HERNANDORENA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	<p>KAPRITXO</p> <p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>KULUN</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uharte Gotzaina, 1-behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>OGI BERRI Kafetegia Okindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74</p>
<p>LEITZAHIROLAK</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p>MAIMUR</p> <p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>Olaia Bazar</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA eskeletan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>

BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 3AN EGIN ZUTEN AURKEZPENA

Agroekologia eskola herritarra abiatu dute hainbat eragilek

Balletxeko Etxearekin batera, EHNE, Hazitik Hozie, Lekarozko Legate elkarte, Anizko elkarte eta Jo ala Jo bildu dira ekimenean



UTZIITAKO ARGAZKIA

Baztango agroekologia eskola herritarraren aurkezpena egin zuten otsailaren 3an.

TTIPI-TTAPA

Herriko hainbat elkarte eta udalak Baztango agroekologia eskola herritarra aurkeztu zuten otsailaren 3an. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean egindako agerraldian ekimen honen nondik norakoak eta eskaintza aurkeztu zituzten. Joseba Otondo alkatearen erranetan urteetan bailarako hainbat elkarren ekimenak bateratu eta koordinatzearen emaitza da ekimena. «Sakabana-turik diren ikastaroak eta indarrak elkartu eta el-

karlanarekin gorago dagoen, kualitatiboki desberdina den zerbaitean bihurtuz». Alkatearen iritziz, «batasunak ikusgarritasuna ekartzen du eta eskola herritarrarekin oharkabean pasatzen ziren hainbetez ekitaldiri bertze balioa ematen zaie. Oraingo krisi ekonomiko, sozial eta kulturalaren testuinguruan geroari buruz moldatu behar horretan, bertze eginahala». Ekimenean parte hartu duten eragileak orota-

rikoak dira, aurten, Udala, EHNE, Hazitik hozie, Lekarozko Legate elkarte, Anizko elkarte eta Jo ala Jo bildu dira.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez eragile bakoitzak ikusi du zer eta nola antolatu eta eragile bakoitza izanen da bere ikastaroaren arduraduna. Modu berean, aurten koordinatu direnak elkarte batzuk izanagatik, heldu den urtean, akaso, bertze batzuk izanen direla erran dute.

Hazitik hozieren ize-nean Mikel Sobrinok gaur egun agroekologiaren ikuspegitik Baztanen lanean ari diren hainbat ekoizle daudela erran zuen, bazkaleku komunalak ekologikoan daudela, herritarren artean interesa gero eta handiago dela... eta horregatik, Baztanek agroekologiaren bidean erreferentia izateko ahalmena duela. Sobrinoren erranetan «horretarako, antolaketak eta elkarlana bulka-

tu behar dira. Eta, egiten ari garenari ikuspegi estrategikoa eta eduki ideologikoa eman». Agroekologia eskola herritarrak horri erantzun nahi dio eta, horretarako, aurkeztu dutela erran du. Aurtengo egitarauan bertzeak bertze: fruta-arbolentxerto ikastaroak, bazkan aldizkatze ikastaroak, eztingintza eta erlezaintzak hastapen ikastaroak, haziaren eguna, sagardo eta sagar dastaketa... izanen dituzte.

FLASH

Euskara eta feminismoaz solasaldia

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, *Euskara eta feminismoa bidaide* solasaldia eskainiko dute Idure Eskisabelek eta Lorea Agirrek martxoaren 7an, Arizkunenea Kultur Etxean.

Lehen sorospenak solasaldia

Otsailaren 24an, ortziraletatik goizeko 10etatik 11:30era *Lehen sorospenak* hitzaldia eskainiko dute Elizondoko Osasun Etxean, Osasun etxeko profesional gaztekeraz, Baztango Gizarte Zerbitzuek antolatutako prebentzio saioen baitan.

Hitzak ala ekintzak?

MARTXOAK 7 HITZALDIA

"Euskara eta feminismoa bidaide"

Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre. 19:00etan Arizkunenean

Informazio gehiago www.baztan.eus orrialdean



Oraindik ere ez dago
BERDINTASUNIK:
FEMINISMOA da bidea

Martxoak 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

GIZARTEA → OTSAILAREN 3AN EGIN ZUTEN AURKEZPENA

500 euroko lau beka emanen ditu Udalak

Ikasketa akaberako proiektu eta lanak egiteko bigarren deialdia

TTIPI-TTAPA

Baztan ikergai duten ikasketa edo master akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza deialdia egin du bigarren urtez. Hala, aurkeztutakoen artean 500 euroko lau laguntza emanen ditu. Deial-

di honen helburua herriko ikasleen artean Baztan eta Baztango etorkizunari buruzko kezka eta interesa piztea da eta beraiek egin beharreko lanak edo proiektuak, helburu horretarako egitea. Proiektuak eta lanak bakoitzaren ikasketa arlokoak izanen dira. Deialdian parte hartzeko ikasleek, eskariarekin, proiektuaren edo lanaren memoria aurkeztu beharko dute, gehienez lau orrikoa. Bertan helburuak, metodologia, iturriak, oinarrizko bibliografia...

zehaztu beharko dira. Memoria honek ikasketa akaberako proiektu eta lanaren tutorearen ongi ikusia izan beharko du.

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak balortuko ditu. Bertan Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko ikastetxeko zuzendaria, Cederna-Garalurreko teknikaria, alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egingen ahalko ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitz landaketa Otsondon

Amaiurko haurrek eta gurasoek, Mari Jose Menak (herri eskolako zuzendaria), Juan Kruz Iriartek (Baztango Udalako kontzejala), Manuel Goienetxek (herritarra, zuhaitz eta frutondoetan aditua) eta Amagoia Otondok eta Izaskun Amianok (Otsondo Barride elkarte) zuhaitz landaketa egin zuten otsailaren 12an Otsondo aldean.

Eskariak aurkezteko epea NAOn argitaratu eta hilabete batekoa izanen da. Udaleko web-

gunean ere oinarriak eskuratzeko ahalko dira eta edozein zalantzetarako, udaletxerat jo.

EN plus A1
ES 025

BEROPEL

egurrezko pelleta

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com

BAZTAN

GIZARTEA → MILA EURO ORDAINDU BEHARKO DITU, BAINA HELEGITEA IRAGARRI DUTE

Isuna ezarri diote Garbiñe Elizegiri Aroztegia 'pelotazoa' dela errateagatik

«Adierazpen askatasunaren kontrako eraso larria dira, bai epaiketa baita epaia ere»
EHBilduren ustez

TTIPI-TTAPA

Garbiñe Elizegi alkatte ohiak 1.000 euroko kalteordaina ordaindu beharko dio Palacio de Aroztegiari, Aroztegiako proiektua «pelotazo urbanistikoa» zela adierazterakoan, enpresaren ohorearen kontra egin zuelakoan, otsailaren 14an emandako epaiaren arabera. Enpresak berak 36.000 euroko kalteordaina eskatzen zuen bitartean, Fiskaltzak eta Elizegik berak auzia desestima ztea eskatzen zuten.

Baztango EHBilduren ustez, epaiketa hau adierazpen askatasunaren aurkako eraso larria izan da eta are gehiago argitaratutako

epaia: «Krisi ekonomiko, ekologiko eta sozialak eragiten dituzten jorkaldi ekonomiko espekulatuak salatzeagatik zigortu nahi gaituzte. Hondamendira eramaten gaituztenak inpunitate osoarekin jokatzeko aurrekari ikaragarria da ordezkari politikoak herritarren borondatea defenditzeagatik eta pelotazo urbanistikoak salatzeagatik zigortzea». EH Bilduren ustez, bereziki larria da fiskala bera enpresak jarritako demandaren kontra agertu zela, Garbiñe Elizegiri arrazoa emanez, «eta hala ere epaileak enpresaren ustezko ohorea adierazpen askatasunaren aitzinetik jartzea. Nola deitu behar diogu 530.000 euro inguru balio zuen lur batek ia 36 milioi inguruko balio izatera pasatu izana *pelotazo* ez bada?».

Bidegabekeria honen aitzinean, epai honen kontrako helegitea jarriko duela jakinarazi du Baztango EHBilduk, «eta oztopo guztien gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Fruta-arbolak inautesteko ikastaroa egin dute Elizondon

Laugarren urtez segidan udalak antolatzen duen fruta-arbolak inautesteko ikastaroa egin zen otsailaren 4an. Xabi Akizu irakaslearen gidaritzapean hamaika lagun goiz eta arratsalde, zortzi orduz Elizondoko bi lurzatitan aritu ziren. Akizuk fruta-arbolei probetxu gehien ateratzeko teknikak erakutsi zizkien eta, horretarako, adar aunitz mozteko baina, adarrak markutzea hobe dela azaldu zien. Sobera moztuz gero, zuhaitzak bere indarra adar berriak sortzeko ematen du, bertze gisa, fruituetarako. Bertzalde, inautesten hasi aitzinean zuhaitza ongi aztertu behar dela erran zuen: lurra, gaitzak... eta, ondotik, lanean hasi, betiere ondoko urtea ere gogoan hartuz. Ikastaro hau Agroekologia eskola herritarren baitan egin zen. Ondoko hitzordua, martxoaren 11n Lekarozen egingen den Bertako haziaren eguna izanen da, Hazitik hozie eta Legate elkartearen eskutik.

netik segituko dugula herritarren borondatea defenditzen. Inposizio, mehatxu eta isunek ez diote proiektu honi zi-

legitasunik ematen, guztiz kontrakoa. Modu berean, agerian uzten dituzte gisa honetako proiektuak de-

fenditzen dituzten ordezkarien benetako interesak eta eztabaida politikorako ezgaitasuna».

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ANZABAL INMOBILIARIA




- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 · ELIZONDO · T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com · www.anzabal.com

GIZARTEA → 2004. URTEK HONAT

Gan-torri zerbitzua 11.534 pertsonak erabili dute



Herrietako bestetan eta Baztandarren Biltzarrean

TTIPI-TTAPA

Gan-Torri programa antolatzen du urtero Udalak. Nafarroako Gobernua diruz lagundutako programa da eta honen helburua kotxe istripuak saihestea da. Horretarako herrietako bestak ospatzen diren larunbatetan zein bertelako ospakizunetan autobusa jartzen da, herriz herriko desplazamenduak -joan-etorriak- egiteko. Gan-Torri programa, 2004 urteko martxan dago eta urte hauetan 11.534 pertsonak erabili dute zerbitzu hau Baztanen.

Zerbitzuaren erabiltzaile kopurua 14 urte hauetan mantenduz joan da, grafikoan ikusi daitekeen bezala, baztan beste, urtero 823 pertsonak erabili dute zerbitzu hau.

Nafarroako Gobernuak zerbitzua finantzatzeko diru-laguntza ematen du, baina urteko urtera gutxituz joan da. Lehenbiziko urteetan 4.000 euro ematen zuten eta azken urteetan 2.900 euroko laguntza bertzerik ez dute eman. Zerbitzuaren kostua urteko 9.000 euro ingurukoa da, beraz, diru-laguntzak ordaintzen ez duena Udalak bere gain hartzen du.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Jon Barandiaran
Iruñea.
Haur Hezkuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 4

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · MARTXOAK 11

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · APIRIKAK 27

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MARTXOAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MARTXOAK 9

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MARTXOAK 11

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · APIRIKAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · APIRIKAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 18

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

BAZTAN

GIZARTEA

GIZARTEA → BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK ETA BILGUNE FEMINISTAK ANTOLATUA

Emakumearen Eguna hainbat ekitaldirekin ospatuko dute

Hasteko, 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua martxoaren 5ean

TTIPI-TTAPA

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta Baztango Bilgune Feministak.

Berdintasun Zerbitzuari dagokionez, **martxoaren 5ean**, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua eskainiko dute 19:00etan Arizkunenean. Alazne Untxalo, Amaia Agirre, Alaia Martin eta Oihana Iguaran ariko dira kantari.

Martxoaren 6-7an, *Sare sozialak eta indarkeria* tailerrak eskainiko dituzte Lekarozko institutuan eta Elizondoko Lanbide Eskolan.

Martxoaren 7an, *Euskara eta feminismoa* *bidaide* hitzaldia eskainiko dute Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek 19:00etan Arizkunenean.

Martxoaren 11n, *Bizentaren lumak* solas-jolasa egingen dute 11:00etan Elizondoko Foru Plazan. Berdintasun Zerbitzuti jakinarazi dutenez, «gazteekin egingen dugun ekimena arras interesgarria da. *Bizentaren lumak* izena duen solas-jolas honetan, karta-joko bidez berdintasunaren inguruko kontzep-



UTZITAKO ARGAZKIA

29 bikote hasi dira Antxitoneako pala txapelketan

29 bikote hasi dira Elizondoko Antxitonea trinketeko pala txapelketan, 11 lehen mailan eta 28 bigarren mailan. Apirila bitarte ariko dira lehen fasean eta finalak maiatzaren azken aste hondarrerako iragarri dituzte.

tuei buruz hausnartzea eta eztabaidatzea da helburua (indibidualki, zein kolektiboki)». Horretarako gazteekin formazio saioak egiten ari da Elhuyar (proiektuaz arduratzen den aholularitza) eta ondoren, martxoaren 11n, Elizondon egingen den solas-jolasa gazte hauek dinamizatuko dute.

Martxoaren 12an, *Zapatila gorridun mutikoa* antzezlan eskainiko dute 19:00etan Iru-ritan.

BAZKARIA ETA ZINEFORUMA GAZTETXEAN

Baztango Bilgune Feministak **martxoaren 8an** bazkaria antolatu du 14:00etan Gaztetxe-

an. Izena emateko idatzi emaila *ba2feminista@baztan.eus* helbide elektronikora edo whatsapp edo mezua 650 729639 telefonoan, martxoaren 6a baino lehen. 17:00etan zineforum-a egingen dute Gaztetxean, *Amama* filma eskainiz eta 20:00etan elkarretaratzea Elizondoko Foru Plazan.



Ttipi Txartel berriak egunotan banatuko dira

TTIPI-TTAPA

Txartel moreek baliogalduko dute martxo hondarrean eta, Ttipi Txartela duten ia 2.500 lagunek egunotan hartuko dute txartel berria. Zaharretik desberdintzeko, berde kolorekoa izanen da, eta indarrean egonen da 2019ko martxo bitarte.

Txartelarekin batera **deskontuak** eskaintzen dituzten **65 dena eta zerbitzuen** berri ematen duen liburuak ere hartuko dute. Dendetan ere, Txartela erabiltzera animatzen duten pegatinak daude bistara jarriak. Kontuan izan, merkealdi garaietan, txartelaren deskontuari ez zaiola gehituko merkealdiko beherapena.

Eta deskontuak ez ezik, txarteldun guztiak automatikoki sartuko dira hamabostero Ttipi-Ttapan egiten diren zozketetan.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanc@gmail.com

Martiko
 Pol Zalain, s/n.
 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
 www.martiko.com

Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
 astelehenetik
 ortziralerara
 08:00etatik
 17:00etara

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 3AN LEHEN BILKURA

Otsailean hasiak dira agorriko bestak prestatzen

Baigorriko Polekeleke txaranga bereziak joko du, ez ordea aspalditik gurean izan den Trakets musika taldeak

Josebiñe eta Koro

Eguberriak pasatu berri dira, eta oraino urrun ikusten dira, baina bestetako antolatzaileak lanean hasi dira.

Otsailaren 3an egin zuten lehen bilkura, eta erabaki batzuk ere hartu dituzte. Alde batetik, aspalditik etorri izan den Trakets musika taldea ez dugu aurten izanen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Polekeleke txaranga bereziak giroa jarriko du aurten herriko bestetan.

Bertzalde, Baigorri aldean sortutako Polekeleke txaranga ezagutuko dugu besta bezperako ilunabarrean. Txaranga berezia da hau, alde batetik musikatresnengatik (usaian txarangan erabiltzen ez direnak erabiltzen omen dituzte, kitarra adibidez); eta bertzetik, kantuan eta dantzan umorez ari-

tzen direlako, giro berezia sortuz.

Korrika

Korrikako kontuak martxan daude. Aurten franko urrun pasatzen zaigu: Arizkun eta Elizondo tartean dugu kurritu beharreko kilometroa (apirilaren 3an -astelehena-, 19:00etan), eta Marixan ostatuan

zerrenda emana dago, ordaindu nahi dutenek izena emateko. Korrika kulturala ere antolatzen dabilta: apirilaren 7an (ortzirala) *Gutikzura* dokumentala eman nahi da; eta biharamunean, Bote-luzeko txapelketa eta kontzertuak. Finkatzen direnean, datu zehatzagoak emanen ditugu.

URDAZUBI

GIZARTEA → OTSAILAREN 11-12KO ASTEBURUAN

Artzapezpikua izan da bisitan

Hainbat benta eta etxean dauden eriak bisitatu ondotik, Salvatore monastegiko elizan meza eman zuen

TTIPI-TAPA

Iruñeko artzapezpikua eta Tuterako apezpikua den Francisco Pérez González Urdazubin eta Zugarramurdin ibili zen otsailaren 11-12ko asteburuan.

Urdazubi, Zugarramurdi, Erratzu, Arizkun eta Amaiurko apezpa den Javier Aldaberekin herriko denda eta bentak



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruñeko artzapezpikua, herriko apezarekin, udal ordezkarekin eta Iriarte Bentakoekin.

bisitatu ditu, baita etxean ere dauden zenbait bizilagun ere eta ondotik, Salvatore monaste-

giko elizan meza eman du.

Nafarroan herriz herririk ibiltzeko asmoa omen

du artzapezpikuak eta Urdazubin, 60 urte baziren halako bisitarik jartzosen ez zutela.

SARA

GIZARTEA → OTSAILAREN 27AN

Arramoldatze lanen ondotik berriz irekiko dituzte lezeak

Harrera eta ostatua berritu eta hobetu dute

Joana GERENDIAIN

Urte hasieratik arramoldatze lanak egin dituzte lezeetan harrera eta ostatua berritzeko eta hobetzeko. Lanak ez baitira oraindik bukatuak behartuak izan dira idekitzea gibelatzea eta otsailaren 27an izanen da. Lezeak martxoaren bukaera arte asteleheneretik ostiralera arratsaldeko 2etatik 5ak arte idekiak dira eta asteburuetan arratsaldeko 1etatik 5ak arte.

Antzerkia

Martxoaren 4an, larunbata arratsaldearekin, *Telesforo ez da Boga* antzezlanaren emana

izanen da Lur Berri gelan. Antzerkia Iduzkilogore tropak antzetzuko du, antzerkilari hauek dituzte *Iduzkilogore* eta *Hazparneko anderea* taularatu. Antzezlan honetan, *Casablanca* filma oinarritzat hartuz 1936ko gerlatik Alsina itsasontzian ihes egin duten euskaldun batzuen istorioa kondatzea erabakitzen duten antzerkilari tropa baten gorabeherak kondatzen ditu.

Sartzeak egunean berean salduko dira 10 eurotan (16 urtetik goiti). Antzerkia arratsaldeko 6etan hasiko da.

Mus txapelketa

Otsailaren 25ean Sarako Gazteriak, beste-tako komiteak, Frantziako txapelketarentzat kalifikatzeko mus txapelketa antolatuko du.



ARGAZKIAK: HERRIKO ETXEO EDANTEGIAK UTZIAK

Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa

Joan den urtarrilaren 28an hamar bikote aritu dira musean herriko ostatuan. Irabazleak Leon Urbistondo eta Beñat Iratzoki izan dira Pipo Eyherabide eta Jakes Fordinen kontra. Finala ttikian Antton Etcheverry eta Unai Iribarren ateara dira irabazle.

Partidak arratsaldeko 2:30ean hasiko dira, izenak egunean berean ematen ahal dira edo telefonoz deituz 0616301098 edo 0780425950. 12 euroko parte hartzea galdegina izanen da. Finala Bazko astelehenez, apirilaren 17an, Heletan jokatuko dira.

Kirol emaitzak

Otsailaren 4an, eskubaloian 4 ekipek irabazi dute: 11 urtez azpikoek 22-7, 13 urtez azpikoek 25-21, 15 urtez azpikoek 18-12 eta mutikoek 16-15; 18 urtez azpikoek galdu dute 21-19 eta neskek 30-15. Otsailaren 11n ere emaitzak aski onak izan dira eskuba-

loian, 13 urtez azpikoek 24-17, 15 urtez azpikoek 30-22 eta neskek 25-12 irabazi dute; 11 urtez azpikoek galdu dute 21-8 eta mutikoek 28-22.

Otsailaren 5ean errugbilariek 12-5 galdu dute Herm-en kontra; ondoko astean 25-0 irabazi Saint Jean de Marsacq-en kontra.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Alaia Arteta Mikelperizena, Elizondokoa, otsailaren 8an.

Arkaitz Rodriguez Calzada, Goizuetakoa, otsailaren 5ean.

Ibon Zelaieta Egia, Lesakakoa, otsailaren 1ean.

Emma Jorajuria Garcia, Doneztebekoa, otsailaren 2an.

Xabier Almandoz Telletxea, Doneztebekoa, otsailaren 9an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Flora Urrutia Ezkurra, Irurita-Arraiozkoa, otsailaren 5ean, 74 urte.

Tomas Aleman Etxeberria, Amaiurkoa, otsailaren 8an, 72 urte.

Maria Josefa Gainza Aldazabal, Berakoa, otsailaren 8an, 88 urte.

Cruz Buldain Urrutia, Elizondokoa, otsailaren 9an, 87 urte.

Juan Pedro Zozaia Gofii, Urrozkoa, otsailaren 10ean, 78 urte.

Carmen Aiestaran Tapia, Lesakakoa, otsailaren 10ean, 74 urte.

Juan Benito Arratxea Ariztia, Irurita-koa, otsailaren 11n, 83 urte.

Maria del Carmen Etxeberria Mitxelena, Berakoa, otsailaren 11n, 84 urte.

Francisca Etxepeteleku Etxebeste, Lesakakoa, otsailaren 11n, 92 urte.

Cesareo Jesus Arrupea Plaza, Lekaroz-Gartzaingoa, otsailaren 13an.

Ramona Perurena Apezetxea, Goizuetakoa, otsailaren 3an, 90 urte.

Leandro Apezetxea Goizueta, Goizuetakoa, otsailaren 11n, 82 urte.

Juan Bautista Perurena Apezetxea, Leitzakoa, otsailaren 14an, 87 urte.

Santiago Zunda, Sarakoa, otsailaren 10ean, 87 urte.

Fermina Dainziart, Sarakoa, otsailaren 12an, 76 urte.

Guy Blas, Sarakoa, otsailaren 13an, 85 urte.

Francisco Javier Manterola Etxeberria, Berakoa, otsailaren 14an, 76 urte.

Mari Cruz Beloki Goia, Elizondokoa, otsailaren 15ean, 90 urte.




Jose Luis Mitxelena Petrikorena

1952/02/21 - 2017/01/23

Familiak eskerrak eman nahi dizkio beilatokira eta elizkizunetara hurbildu diren guzietei.

Bere aldeko meza
otsailaren 26an, goizeko 11etan
Igantzikoa elizan



Azkenian erori zara gure etxeko haritza hain haundia genuen hura sendoa eta bortitza bere bizitzan gainditu arren lehortea eta ekaitza azkenian gailendu zaito zahartzaroan gaitza bere babesean pasa dugu orain arteko bizitza ta orain haren itzala ezin bilaturikan gabiltza gure gogoan geldituko da egin duzun eskaintza ez dugu sekula atzenduko zure ahotsa ta hitza.

Zure familia



M^a Josefa GAINZA ALDAZABAL

Beran hil zen, 2017ko otsailaren 8an
88 urterekin

Ama, amoña

Egun hauetan gure ondoan izan zareten guztiei, eskerrik asko

MENDI LASTERKETAK → MARTXOAREN 6TIK 31RA APUNTATU DAITEKE APIRILAREN 9AN EGINEN DEN PROBARAKO

Berako Mendi Maratoi Erdiko izen emateko epea irekiko du Manttalek

Taldeko bi kide Espainiako txapelketan parte hartzeko hautatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Berako Mendi Maratoi Erdian parte-hartzeko izen-emateko epea martxoaren 6an, 15:00etan irekiko da eta 31n itxiko da, edota lehenago eskuragarri jarzen diren 525 dortsalak agortzen badira. www.kirolprobak.com webgunearen bitartez egingo dira izen-emateak. Behin izena emanda, parte hartzaileak apirilaren 5a arte dauka gibelera egiteko eta dirua itzuliko zaio. Lasterke-



tan parte hartzen duen orok korrikalariaren boltsa eskuratuko du eta gainera eskubidea izanen du oparien zozketan eta lasterketa ondoren egiten den lunchean parte hartzeko.

Mendi Maratoi Erdia

apirilaren 9an egingen da eta berriro ere Nafarroako Txapelketarako lehen proba puntuagarria izanen dra. Ondoren Arantza (apirilaren 23an), Monrealeko Extreme Higa (maiatzaren 7an, 21 kilometro), Ata-

rrabiako Hiru Mendi (maiatzaren 20an, 21 kilometro), Isabako Camille Extreme (ekainaren 4an, 31 kilometro), Etxarri Aranatzeko Mendira Joan Etorria (urriaren 1ean, 10 kilometro) eta Agoizko lasterketa

(urriak 8, 23.5 kilometro) izanen dira hurrenez hurren.

SANTAMARIA ETA APEZETXEA, HAUTATUAK

Manttaleko bi lasterkari hautatuak izan dira Espainiako Txapelketan Nafarroako selezioarekin parte hartzeko. Asier Apezetxeak kilometro bertikalean parte hartuko du Arredondon (Kantabria) maiatzaren 21ean 2.7 kilometro eta 1.101 metroko desnibela daukan lasterketan.

Santamariak, ekainaren 25ean, Zumaiako Flysch Trailean ospatuko den Espainiako Txapelketan parte hartuko du 42 kilometro eta 2.300 metroko desnibela daukan ibilbidean.

KIROLA → NAFARROA OINEZ-EK PRESTATUTAKO PROBA BEREZIA LESAKAN

Bikin batin duatloirako izen ematea irekia dago

20 kilometro mendi bizikletan eta 13 kilometro lasterka egingen dituzte apirilaren 29an

TTIPI-TTAPA

2017ko Nafarroa Oinezeko urteko jardueren baitan, kirol proba berezia antolatuko da apirilaren 29rako Lesakan: Bikin batin duatloia. Na-

farroa Oinezeko leloari lotuta, kirolariak bi modalitatekin proba bat egingen dute hemen ere eta 20 kilometro inguruko ibilbidea mendi bizikletan (854 metroko desnibel positiboa) eta 13 kilometrokoa lasterka (450 metroko desnibela) osatu beharko dute bikoteka.

Irteera, goizeko 9:00etan izanen dute Plaza Zaharrean, erreleboa Linddurrenborda

sagardotegian emanen dio txirrindulariak korrikalariari eta helmuga berriz ere plazan izanen dute.

Bai plazan, baita Linddurrenbordan ere, animazioa izanen da eta probaren ondotik, herri bazkaria, nahi duten kirolarientzat, baita izena ematen duen edonorentzat ere. Izen-ematea egin daiteke dagoeneko www.kirolprobak.com webgunean.



PILOTA → OTSAILAREN 25EAN DONEZTEBEN

Malerrekako eskuz binakako txapelketaren finalak jokoan

Erreka elkarteak hamabosgarren aldiz antolatutako txapelketan 186 bikotek parte hartu dute, zazpi kategoriatan banatuak

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hamabosgarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako txapelketaren finalak otsailaren 25ean jokatuko dituzte Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan.

Guztira 186 bikotek parte hartu dute txapelketa honetan, adinaren arabera zazpi kategoriatan banatuak. Kanporaketaz kanporaketa, azkenean hauek iza-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Larunbat goizean zazpi kategorietako finalak jokatuko dituzte Doneztebeko pilotalekuan.

nen dira bikote protagonistak larunbat honetan 09:00etan hasiko diren azken partidetan.

Benjaminak: Landa eta Madina (Beasain); Lanzeta eta Segurola (Atzapar).

Alebinak: Zubizarreta eta Garcia (Lapke); Agesta (Erreka) eta Goi-

koetxea (Eple).

Infantilak: Iker Amiano (Añorga); eta Emaldi (Zeanuri); Sein eta Aburuza (Oiarpe).

Kadeteak: Oskoz eta Cuairan (Oberena); Gutierrez eta Garmendia (Titin III).

Jubenilak: Sein eta Etxeberria (Oiarpe); Egi-

guren (ilunpe) eta Oliben (Añorga).

Senior 2: Urbieta eta Ortiz de Urbina (Antiguo); Egiguren eta Bikuña (Antiguo).

Senior elite: Arrieta (Hernani) eta Gorriti (Erreka); Salaberria (Erreka) eta Arratibel (Tolosa).

PALA → MUNDUKO BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Xabi Iargarai azpitzapeldun hirugarrenez

3-0 galdu zuen Ibai Perez bizkaitarraren kontra

TTIPI-TTAPA

Hirugarrena izaten omen da balekoa, baina Xabi Iargarai erratzuarraren kasuan ez da halakorik gertatu. Otsailaren 10ean, buruz bu-

ruko Munduko pala txapelketaren hirugarren finala jokatu zuen, baina aitzineko bietan bezala, galtzea suertatu zitzaion. Ibai Perezek 3-0 irabazi zion (10-3, 10-8 eta 10-6)

Ibai Perezek lehen finala zuen, baina nagusitasun handiz irabazi zion Xabier Iargarairi Munduko Pilota Batzarrek antolatzen duen bu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabi Iargarai azpitzapeldun hirugarrenez eta Ibai Perez txapeldun lehen aldiz.

ruz buruko txapelketaren finalean.

Takea izan zen finaleko gakoa, txapeldunak ederki baliatu zuelako, eta erratzuarra ez zelako fin ibili erretoan. Iargarai, 2014 eta 2015eko finalak Fustohandiaren kontra galdu

ondotik, bazuen oraingoan itxaropena, baina Perez nagusi izan zen. Erratzukoak ez zuen bere eguna izan eta hamazazpi huts egin zituen. Perezek guztira egindako tantoen erdia baino gehiago dira horiek. Finalaren aitzinetik

hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partida jokatu zuen eta Pablo Fustok Esteban Gaubekari irabazi zion. Gaubekak, sorbaldako minez, bertan behera utzi zuen partida lehen bi jokoak galdu ondoren.

otsailak 23 - martxoak 9

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ospakizunak



ARANTZA | 2017.03.11

Trikitixa jaialdia antolatuta dute bigarren aldiz

Baztan-Bidasoaldeko hainbat trikitilari eta panderojole bilduko dira aurten ere Arantzian bigarren aldiz antolatuta duten trikitixa jaialdian. Azpeitiko dantzariak ere ariko dira. 17:00etan hasiko da saioa, frontoian.

Bertsokak



IRURITA | 2017.03.04

Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdena Iruritan

Julen Zelaieta, Amaia Elizagoien eta Josu Sanjurjorekin batera, Oskar Estanga, Ekaitz Astiz eta Saats Karasatorre ariko dira Gizarte Bilgunean jokatu den saioan. 17:30ean hasiko da.

Erakusketak



LEITZA | 2017.02.18

Udaletxearen 100. urteurrenaren harira argazki erakusketa egonkorra

Azarora arte egonen da ikusgai udaletxeak 100 urte bete dituela eta, antolatuta duten argazki erakusketa. Udaletxean berean jarri dute. Horrez gain, azarora bitartean ekitaldi gehiago izanen direla iragarri dute.

Hitzaldiak

ETXALAR

'Etxalarko hilarriak' liburuz

Otsailaren 24an Pello Apeztexea Kultur Etxean (18:30).

DONEZTEBE

Emozio hezkuntza

Martxoaren 2an 14:50ean San Migel eskolan.

BERA

'Enderlatsako fusilamenduak. Santa Cruz apaiza'

Otsailaren 24an 18:30ean Beralandetan.

'Emakumeon gorputza: minik gabeko erditze kontzientea'

Martxoaren 4an Estitxu Fernandezekin 17:00etan.

ELIZONDO

'Euskara eta feminismoa bidaide'

Martxoaren 7an Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre 19:00etan Arizkunenean.

LEKAROZ

Jakoba Errekondo eskolan

Martxoaren 11n 12:30ean.

Tailerrak

BERA

'Musikari ttikiak'

Martxoaren 17an, 24an, 31n

eta apirilaren 7an 0-3 urtekoentzat Musika Eskolan. Izen-ematea: 948 012012.

DONEZTEBE

'Norbere burua zaindu zaintzaile izateko'

Otsailaren 23an Afan Elkarrearen eskutik, Malerrekako Mankomunitatean, 16:00etan.

ELIZONDO

'Lehen sorospenak'

Otsailaren 24an Elizondoko Osasun Etxean, 10:00etatik 11:30era. Gaztelaniaz.

'Bizentaren lumak solas jolasa' Foru Plazan

Martxoaren 11n 11:00etan.

BAZTAN

'Sare sozialak eta indarkeria'

Martxoaren 6an eta 7an institutuan eta Lanbide Eskolan.

LESAKA

'Norbere burua zaindu zaintzaile izateko'

Martxoaren 7an Afan Elkarrearekin Kultur Etxean (16:30).

LEKAROZ

Fruta-arbolen txerto ikastaroa

Martxoaren 11n 08:30ean.

Ipuin-kontalariak

DONEZTEBE

Ines Bengoaren ipuin erotikoak

Martxoaren 9an Malerrekako Mankomunitateko egoitzan.

GOIZUETA

'Zazpiak oihal batetik'

Martxoaren 9an helduentzako 19:00etan Ganbaran.

Antzerkiak

SARA

'Telesforo ez da Bogart'

Martxoaren 4an 18:00etan Lur Berri gelan.

DONEZTEBE

'Firin-Farandula'

Martxoaren 8an 20:00etan Zineman.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta horren harira, aurten ere ekitaldi ugari izanen dira eskualdean: hitzaldiak, tailek, margo erakusketak, filmak, antzerkiak, elkarretaratzekoak, bertso saio musikatua, otorduak, kontzertuak... Horiez gain, aurten zortzigarren aldiz mendi ataraldia antolatuta dute Bortziritan. Martxoaren 5ean izanen da, Arantzian, plazatik 09:00etan abiatuta.



BERA

'Beraren konkista'

Martxoaren 12an 18:00etan.

IRURITA

'Zapatila gorridun mutikoa'

Martxoaren 12an 19:00etan.

Bertsoak

LEITZA

'Kapulana bat zintzilik'

Martxoaren 3an 22:00etan

Ateakabeltzen.

NAFARROA

Txapelketako final-laurdena

Martxoaren 4an 17:30ean

Irurritako Gizarte Bilgunean.

ELIZONDO

'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua

Martxoaren 5ean 19:00etan Arizkunenean Alazne Untxalo, Amaia Agirre, Alaia Martin eta Oihana Iguaran.

ARANTZA

Bertso aforia

Martxoaren 11n Iker Zubeldia eta Sebastian Lizasorekin Ekaitza Elkartearen.

DONEZTEBE

'Testurak' saio musikatua

Martxoaren 12an 18:30ean Zineman Oihana Iguaran, Saioa Alkaiza eta Ane Labaka.

Zinema

DONEZTEBE

Filmak

Otsailaren 26an *Peter y el dragon* 16:30ean Zineman.

Martxoaren 5ean *Kunfu Panda 3*, 16:30ean Zineman.

Martxoaren 7an *Sufragistas* Herrigunean.

ELIZONDO

'Amama' filma Gaztetxean

Martxoaren 8an 17:00etan.

ETXALAR

'Gutik Zura' Kultur Etxean

Martxoaren 10ean 18:30ean.

Nire aukera



Mentxu PEÑA LIZARAZU

Sortzez irundarra den arantzarra

«Ez gara ohartzen gure begien aitzinean dugun aberastasunaz»

Hogeita zazpi urte daramatza Arantzan bizitzen eta honezkeroko bertakoa sentitzen dela dio Mentxuk «hor kanpoan nabilela galdetzen badidate Arantzakoa naizela erantzuten diet». Euskara irakaslea izan da bere bizitza osoan «22 urtez aritu izan naiz Bortzirietako Euskaltegian» eta egun, zeregin horiek utzita zinegotzi lanetan dihardu. «Euskara eta gizarte zerbitzuekin zerikusia duten gaien ardura» duela azaldu digu eta batzuetan «arront zaila» omen da «hobera egin nahi dugun arren, batzuetan ez dugulako ahalmenik». Mendia du afizio, «lasaitasuna, askatasuna... gauza aunitz ematen dizkit» eta Arantzan etxetik atera orduko du gozatzeko aukera «lbin-tza, etxeko sukaldetik ikusten dugu eta hagitz polita da». Martxoaren 5ean jantziko ditu berriro ere mendiko oinetakoak, Bortzirietako emakumeen mendi itzulia parte hartzeko baita «orain dela zortzi urte atera ginen Igantzik eta geroztik urtero antolatutako dugu». Bortzirietako herri guztietan barna egin dute itzulia eta «orain bigarren buelta egiten ari gara. Lehenbizikoan 11 emakume izatetik azkenekoan 80 iza-tera iritsi gara, izugarria da». Edozein emakume joateko moduko irteera antolatzen dute «helburua ez da tontorak igotzea. Guretzat denbora pixka bat hartu eta mendiaz disfrutatzea baizik». Mendiaz gain, irakurtzea ere maite du «orain Kirmen Uriberen azkena ari naiz irakurtzen» eta liburu bat gomendatzeko ere eskatu diogu «Atxagarekin izugarri gozatu dut eta Arantxa Urretabizkairen azkena ere interesgarria iruditu zait». Arantzako txokorik gustukoenez galdetuta, herriko sarrera aipatu digu «parketik ikusten den ikuspegia hagitz polita da. Irudikatzen duenagatik ere bai. Ez gara ohartzen gure begien aitzinean dugun aberastasunaz». Horri lotuta, etorkizunaz kezka apur batekin mintzo da «jendea ez bada denborarekin baserrira lotzen, baserri horien etorkizuna akabo da eta horrekin paisaia». Eta hori ez luke nahi «lasai eta ongi» bizitzen segitzearekin egiten duelako amets eta amets horretan, mendirik ez da falta.

«Bortzirietako emakumeen mendi itzuliaren helburua ez da tontorak igotzea. Guretzat denbora pixka bat hartu eta mendiaz disfrutatzea baizik».

Kontzertuak

BERA

Katakuren berreraikitze besta

Otsailaren 24an 22:00etatik aitzinera Le trois satellite, Joseba Irazoki & Felix Bup...

GOIZUETA

Kontzertuak Gaztetxean

Martxoaren 4an Etsaiakeroak eta Space Jam Session.

DONEZTEBE

Mendi abesbatzaren saioa

Martxoaren 10ean Kasino elkartearen, 20:00etan.

Ospakizunak

BERA

Hazien Eguna

Martxoaren 4an.

ARANTZA

Trikitixa jaialdia frontoian

Martxoaren 11n 17:00etan.

BERA

Kantu zaharren bazkaria

Martxoaren 11n Mendiko sagardotegian, 14:00etan.

LEKAROZ

Hazien Eguna

Martxoaren 11n.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Martxoaren 5ean Amaiurtik Aritzakunera (07:30).

Martxoaren 12an Lekaroztik Unbotora (07:30).

ARANTZA

Bortzirietako Emakumeen VIII. Mendi Itzulia

Martxoaren 5ean 09:00etan plazatik abiatuta.

ZUGARRAMURDI

Abxuria Mendi Taldearen irteera

Otsailaren 26an Sunbilla-Bertiz-Donzetebe, 08:00etan abiatuta.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisu salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagarriak baseerriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

SUNBILLA. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

ARIZKUN. 77 m²ko pisua salgai. 30m²ko trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko prest. 90.000 euro. ☎619 474935 / enrifaya@gmail.com (Enrike).

BERA. Ibaialde auzoan 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela eta sukaldearekin. PVC leihoak, berogailua eta igogailua. Fatxada eta teilatu berrituak. Bizitzera sartzeko prest. 138.000

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO GEHIENEZ 25 HITZ ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

euro negoziagarriak.
☎699 431871.

BERA. Ugalzua kaleko 2. zenbakian, 79 m²ko pisua salgai: sukalde hornitua-jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza. 195.000 euro negoziatzeko. ☎607 437189.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

ELIZONDO. Pisu batean logela errentan emateko. ☎631 341849.

LESACA. Pisu errentan emateko. Sukalde elektrikoa, beheko sua, ganbara eta behean biltegia. ☎661 262531.

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisu berria moblezatua

errentan emateko. Igogailua, berogailua, trastelekua, sukalde-egongela, komuna eta logela bat. 350euro. ☎663 312557.

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxe bat errentan emateko. Herriko bistazoragarriak eskaintzen dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971/ 672 153196.



BERA. Legia karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, trastelekua, gasoliozko kalefakzioa. Oso egoera one-

an. Animaliak ez dira onartzen. ☎678 363398 / 678 305250.

LESACA. Apartamentua errentan emateko. Herriari bertan. Logela bat eta igogailuarekin. ☎675 714360 / 639 509148.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESACA. Pisu errentan hartu nahi da. Gutxienez 2 logelarekin. Mutil arduratsua. ☎650 350828.

LOKALAK/GARAJEAK
salgai

BERA. Garbi ogi & Coffee kafetegia eta okindegia salgai edo traspasatzen da, ezin delakoz atenditu. ☎646 356983.

LANA
eskaintzak

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak,

autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

IRURITA. Soldeatzen dabilen langilea behar da eta DBH titulua duena edo PIC soldadura. ☎630 184847.

LESACA. Kafetegia batean zerbitzaria behar da, asteburuetan 09:00-13:00etara eta langileen oporraldiak betetzeko. ☎620 700964.

Biltegi batean zama lanetan aritzeko kamioi gida-baimena eta informatika ezagutzak dituen langilea behar da. Astelehenean larunbat eguerdira. Bidali curriculuma: jaldunitz@gmail.com.

Beola Etxean lanaldi erdian aritzeko **zerbitzariak** behar dira, frantsesez pixka bat jakiteak. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

Etxalarako **ile-apaindegia batean laguntzailea** behar da. ☎636 827980 / 948 635237.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean zerbitzaria behar da eguzte lan egiteko. Frantsesa jakitea eta esperientzia pixka bat izatea eskatzen da. ☎948 599009 / 948 599146.

Etxalar Hotelean **sukaldaria eta harreragilea** behar dira. Harreragilea izateko baldintza bakarra 4 hizkuntza jakitea izan da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingeleza. Interesatuak bidali curriculuma: info@ttipi.eus.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 3tik 10era bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 61 €

Zerri gizena
1,156 € kiloak.

Zerramak:
0,730 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,19

1.koa 3,96
2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,27
1.koa 4,00
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,17/3,27
Zaldi-behorrak: 1,87/2,07

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20

ZUGARRAMURDI. Aitzatenea jatekean zerbitzaria behar da asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez dakiena eta esperientzia pixka batekin. ☎948 599187.

LANA
eskariak

Haurrak edota adinekoak zaintzeko lan bila. Adinekoak zaintzen eta haurrak zaintzen esperientziadun neska. Interna moduan edo orduka aritzeko. ☎604 152370.

Beran bizi den **emakume euskalduna** edozein lan bila dabil. Ikasteko prest, nahiz eta produkzio, kajera eta kamarera moduan esperientzia izan. ☎655 720052.

Esperientzia duen emakumea interna edo orduka adinekoak edota haurrak zaintzen, garbiketara lanetan... aritzeko lan bila. ☎631 341849.

31 urteko **mutil arduratsua** lan bila. Arlo desberdinetan interesatua: nekazaritzan, abeltzaintzan, margo lanetan edota adinekoak zaintzen... ☎698 285544.

Zonaldean lan bila. Ilea-paindegi laguntzaileko ikasketak dituen eta haurrak zaintzen eta garbiketara lanetan esperientzia. Haurrak zaintzen, adinekoak zaintzen edota garbiketara lan bila asteburuetarako. ☎644 120629.

Emakume esperientziaduna adinekoak orduka edo interna bezala zaintzen eta haurrak zaintzeko lan bila. Pazientzia handikoa eta langilea. ☎632 076342.

BAZTAN. Adinekoak zaintzeko edota garbiketara lanetan aritzeko lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziadun emakumea. Disponibilitate osoa, asteburuak barne. ☎636 362782.

BAZTAN. Elizondoko 27 urteko neska batek administrazio, sukalde laguntzaile, etxeak garbitzen, zerbitzari, dendetan saltzaile

edota adinekoak zaintzen lan eginen luke. Kotxe propioa. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako ziurtagiriarekin. Esperientzia adineko pertsonak zaintzen. ☎649 901395.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegi.....
· Klase guzietako zurgin lanak
· Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 · 647 810 144
Gorritibaia · ARANTZA

ZERBITZUAK
denetarik

LESAKA. Etxeko tartak egiten diturtebetetze eta jaunartzetarako. ☎642 993776.

MOTORRAK
salgai

Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajejan. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefazio estatikoa, konbertidorea... ☎630 041480.



MOTORRAK
tailerrak

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 · BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ANIMALIAK
galdu/aurkituak

LESAKA. Zakurra agertu da abenduaren 24an, Olentzero egunean, Frain auzoan. ☎607 446925.

ANIMALIAK
oparitzeko

LEITZA. 4 hilabeteko txakurkumea oparitzeko. Ama ardi zakurra eta atxa labrador arrazakoa. ☎948 510224.



ALKAIAGA. Katua desagertu zaigu urtarillaren 2an. Norbaitek ikusten badu, dei dezala, faborez. ☎655 722477.



ITUREN. 11 urteko Border Collie emea, ile zuria eta ertaina galdu zen Urtezahar gauean lurraldean (Amezti aldera). Aurkituz gero, deitu faborez. ☎650 825377.



ANIMALIAK
salgai

Bildots ahariako muturgorriak salgai. ☎697 440590.

DENETARIK
salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

Logela osoa salgai: ohea, bi mesanotxeak, armairua eta tokadorea. Egoe-



KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
Kanflonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

ATE IREKIAK
2017-3-4
10:00-12:00
ASKIN Doneztebeko Udal Hour Eskola
Aurrematrikulazioa, Martxoaren 1etik 15era

ra hagitzen ohean (3 urtez erabilia). Haritzez egindakoak. Altzariak banaka saltzeko prest. Prezio interesgarria. ☎630 693173 (19:00etatik aitzinera).

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanean da. ☎676 242520.



BERAKO UDALA
OIHAN ENKANTEA
BERAko Udalak plegu itxien bidezko enkante publikoan salgai jarriko du Komiziarra parajeko oihan-erprobatamendua.
Proposamenak iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko 20 egun naturalen, 13:30ak arte, aurkeztuko dira. Azken egun hau larunbatarekin suertatzen bada, astelehena arte luzatuko da epea.
Baldintza pleguak Udaltzakaritzan, 012 Zerbitzuan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai daude.
Bera, 2017.02.02
ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre

BERA. Txertatutako 200 sagarrondo salgai. Oso merkeak. ☎626 774582.

Zeharkako txirula salgai. ☎675 714360 / 639 509148.

Etxe partikularrentzat **gas-galdara** salgai, Domusa markakoa, akumadorearekin. 2009koa. Estreinatua gabea. ☎675 714360 / 639 509148.

DENETARIK
galdu/aurkituak


Abenduaren 24an, Olentzero egunean, Berako plazan eskuz egindako **tokila beltz** bat galdu genuen. Faborez norbaitek aurkitu baldin badu deitu ☎635 701610.

PLAZAN BAZAN



Eooo! Hementxe gaude berriz ere!!!

DOMINOA



Ezagutzen duzu domino jolasa? Bai, ezta?
Osatu ilada hau fitxetan falta diren irudiak marraztuz.

Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak


KIOSKOA
JOLAS-PARKEA
AZOKA
UDALETXEA
IKUSKIZUNAK



IPUNAK
KOMIKIAK
MARRAZKIAK

ELUR- KRISTALAK

Elurra egin dezan, hotza eta hezetasuna behar dira. Elur malutak izotz puska txikiz osatuta baitaude. Izotz puska txiki edo kristaltxo horiek oso bitxiak dira, oso forma ederrak hartzen dituzte eta ez omen dira bi berdin... Tira! Hemen bail! Hemen izotz-kristal bat errepikatuta dago. Zein?



7 ALDEAK



PUBLIZITATEA

P
 Z U R E
 B
 L
 I
 Z
 I
 T
 P L A Z A N
 T
 H E M E N
 A

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7-1 | 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

www.erran.eus | publi@ttipi.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Legasako **GAXUXA ZELAIETA** EULATEK 10 urte bete ditu otsailaren 18an. Aunitz urtez Igantziko familiaren partetik!



Sunbillako **IKER IBARRA MARIEZKURRENAK** 6 urte bete ditu otsailaren 7an. Zorionak familia guztiaren partetik eta 6 mila muxu. Segi zaren mutiko alaia eta ona izaten!!!



MADDI eta AITOR BALEZTENA TRUEBAK 3 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bana Eratsun, Doneztebe eta Arantzako familiaren partetik.



Otsailaren 16, 18 eta 27an, **INAR, OLATZ eta GORKAK** urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partetik. Prestatu bazkari goxo-goxoa!!



Elizondoko **JANIRE URREAGA IBARRAK** 5 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak Sunbilla eta Elbeteko familiaren partetik. Egun polita pasa!



Sunbillako **ANE JAUREGIK** otsailaren 6an 4 urte bete zituen. Zorionak polittena! Doneztebeko familia eta bereziki Hegoi eta Aimarren partetik.


Zorionak amatxi **INAXI!** 101 urte bete ditu ilbeltzaren 29an. Hagitz ongi ospatu dugu!! Zorionak eta muxu haundi bat zure etxeko familia guztiaren partetik.



IZARO ETXEPARE ELRIOK otsailaren 21ean 13 urte beteko ditu. Zorionak sorgintxo! Zure familia guztiaren partetik! Ea prestatzen duzun bizkotxo bat goxo-goxoa!!! Muxu aunitz!!!!



Legasako **NAIARA MENDIBURU ANDRESENAK** otsailaren 27an 10 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Disfrutatu zure eguna. Mila muxu zuretzat!!!



Legasako **IRADI ARTEAGA ANDRESENAK** martxoaren 1ean urte bat beteko du. Zorionak zure familiaren partetik!!! Mila muxu zuretzat!!!



ALBA FEITO lesakarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 11n. Zorionak aita, ataxi eta amaxiren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus** en

argazki soila **5** EURO

aldizkarian interneten **10** EURO



Atera TTIPI TXARTELA hemen
probextu aukera!

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
2019/04
372

ttipi-ttapa

Erabili Ttipi txartela
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

2016 · ABENDUA



Liderrak

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

CIESek Nafarroa Garaiko

mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa

27.000 irakurle

DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
DIARIO DE NAVARRA	10.000 irakurle
GARA	7.000 irakurle
BERRIA	2.000 irakurle
EL PAÍS	2.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	7.000 irakurle

Ttipi-Ttaparekin zure iragarkiak eragin haundiagoa du



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%52,70
EMAKUMEAK	%47,30

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%09,00
25-34 URTE	%12,70
35-44 URTE	%22,50
45-54 URTE	%16,30
55-64 URTE	%21,40
+64 URTE	%18,10

IKASKETA MAILAREN ARABERA

LEHEN HEZKUNTZA/GUTXIAGO	%30,40
OINARRIZKO BATXILERGOA	%13,50
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%28,50
UNIBERTSITATEA	%27,60

Datu iturria: CIES, 2016ko bigarren neurketa

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B
04/2016
Zk. 181972

**ZOZ
KETAK**

Martiko - Lote bat

Miguel Goikoetxea Ostiz | EZKURRA

Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera

M^a Paz Hernandez Etxepare | LEGASA

BKZ abentura - 2 sarrera

Fermin Iraizoz Urdaniz | IRUÑA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Leoncio Goñi Arregi | OROÑOZ MUGAIRI

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Rakel Erbiti Zabaleta | LEITZA

Mikelen Borda - Bi otordu

Izaskun Irisarri Martikorena | ELBETE

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

M^a Nieves Irazoki Arregi | BERA

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Itziar Arburua Irazoki | ZUGARRAMURDI

679.
aleko
irabazleak



2 sarrera



2 SARRERA
LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



ETXALARKO

Herriko Ostalua-Jatetxea

2 OTORDU

ETXALARKO OSTALUA - JATETXEA

www.etxalarherriko.eus



2 sarrera



2 SARRERA
IRRISARRI LAND

www.irrisarriand.com

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera
Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT
BUATXABAL

www.buatxabal.eu



BUATXABAL
Basque Clothing

CD BAT
BAGA-BIGA

www.baga-biga.eus



baga-biga
MUSIKA IDEIAK

**MU
SI
KA**



Unai Ormaetxea
- Mario
haritik tiraka

Lanku
www.lanku.com

**DES
KON
TUAK
%**

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

LESACA | %5



Garbi
drogeria - lurrindegia

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

elika Dietetika
eta elikadura

BERA | %5, kontsultan

Ariztela
DEKORAZIO TAILERRA

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan
%10, 50€tik gorako erosketetan

Zaldúa
argazkilaria

DONEZTEBE/ELIZONDO |
%10, produktuetan

IPARLA
kirolak

ELIZONDO | %8, 30€tik gora